# UPV/EHUko IKASLEEN I. PARTAIDETZA-PLANA



IKASLEEN ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE ALUMNADO

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

www.ehu.es

# UPV/EHUko IKASLEEN I. PARTAIDETZA-PLANA

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluan onartuta,
2012ko uztailaren 19an

Koordinazioa eta lantzea

UPV/EHUko Ikasleen Errektoreordetza

Elena Bernaras Iturrioz. UPV/EHUko Ikasleen Errektoreordea
Fernando Etxegarai Agara. Ikasleentzako Argibide Zerbitzuko Koordinatzailea (IAZ)
Isaac Barrio Marín. Unibertsitate Orientaziorako Teknikaria (IAZ)

2012ko uztaila

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9860-763-5
Lege gordailua: BI - 2.231-2012

# AURKIBIDEA


| | | |
|---|---|---|
| | **Hitzaurrea: integraziorako proposamena** | 9 |
| 1 | **Atarikoa** | 11 |
| 2 | **Partaidetza eta Europako Unibertsitate Eremua (EUE)** | 13 |
| 3 | **UPV/EHUko ikasleen partaidetzari buruzko lege-esparrua** | 15 |
| 4 | **Ikasleen partaidetza Unibertsitatean: kontzeptua eta arloak** | 19 |
| 4.1. | Partaidetza irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren arloan | 20 |
| 4.2. | Partaidetza kudeaketaren eta ordezkaritzaren arloan | 20 |
| 4.3. | Partaidetza gizartearen eta kulturaren arloan | 20 |
| 4.4. | Partaidetza komunitatearen arloan | 21 |
| 4.5. | Partaidetza ebaluazioaren arloan | 21 |
| 4.6. | Ikasleen partaidetzaren gakoak | 21 |
| 5 | **Partaidetza-Planaren helburuak** | 23 |
| 5.1. | Irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren arloa | 23 |
| 5.2. | Kudeaketaren eta ordezkaritzaren arloa | 23 |
| 5.3. | Gizartearen eta kulturaren arloa | 24 |
| 5.4. | Komunitatearen arloa | 24 |
| 5.5. | Ebaluazioaren arloa | 24 |
| 6 | **Partaidetza-Planaren metodologia** | 25 |
| 6.1. | 1. fasea. Adituekin bilera | 25 |

6.2. 2. fasea. Eztabaida-taldeak. Lehen saioak: AZP, II, ikasleak, ikasle-kontseiluak 25

6.3. 3. fasea. UPV/EHUko ikasleentzako inkesta 26

6.3.1. Laginaren ezaugarriak 27

6.4. 4. fasea. Eztabaida-taldeak. Bigarren saioak: AZP, II, ikasleak, ikasle-kontseiluak 32

6.5. 5. fasea. Partaidetza-Planaren behin betiko idazketa 32

**7 Emaitzak** 33

7.1. Lehenengo eztabaida-saioak 33

7.2. On-line inkesten emaitzak 34

7.2.1. Zer motatako ekintza/jardueretan parte hartzen duten 35

7.2.2. Ikasleek UPV/EHUn parte hartzea mugatzen duten faktoreak 39

7.2.3. Ikasleek UPV/EHUn parte hartzea errazten duten faktoreak 42

7.2.4. Zure ustez, zer jardueratan parte hartu behar dute ikasleek? 44

7.2.5. Ikasleen partaidetza areagotzeko iradokizunak 52

7.3. Bigarren eztabaida-saioak 57

7.3.1. Irakaskuntza eta Ikerkuntza. Ekintzak zehaztea 57

7.3.2. Kudeaketa eta Ordezkaritza. Ekintzak zehaztea 58

7.3.3. Gizartea eta Kultura. Ekintzak zehaztea 59

7.3.4. Komunitatea. Ekintzak zehaztea 60

7.3.5. Ebaluazioa. Ekintzak zehaztea 61

**8 Esku hartzeko ekintzen proposamena** 63

8.1. Arloa: Irakaskuntza eta Ikerkuntza 63

8.2. Arloa: Kudeaketa eta Ordezkaritza 66

8.3. Arloa: Gizartea eta Kultura 69

8.4. Arloa: Komunitatea 71

8.5. Arloa: Ebaluazioa 72

**9 Ondorioak** 75

**10 Planaren garapena eta jarraipena** 77

**11 Erreferentzia bibliografikoak** 79

**12 Eranskinak** 81

I. eranskina. Lehenengo eztabaida-saioetako edukia 82

II. eranskina. UPV/EHUko ikasleentzako inkesta 83

III. eranskina. Partaidetza-Planean lagundu duten pertsonak 91

# HITZAURREA: INTEGRAZIORAKO PROPOSAMENA

Unibertsitatea etengabe aldatzen den erakunde bat da, eta gaur egungo unibertsitateak bereziki eskatzen digu bere barneko talde guztien parte-hartzean sakontzea; ikasleenean, besteak beste.

Unibertsitate-jardueraren zati oso garrantzitsu bat belaunaldi berrien prestakuntzara bideratuta dago. Hala ere, paradoxikoki, unibertsitate tradizionalean ikasleek izan duten parte-hartzea beste taldeena baino txikiagoa izan da.

Gobernu Kontseiluak berriki onartu duen Ikasleen I. Partaidetza Planak irauli egin nahi du dinamika hori. Euskal Herriko Unibertsitatea aspaldi hasi zen bideak ezartzen ikasleen parte-hartzea unibertsitate-bizitzaren arlo guztietara zabaltzeko. Dena dela, orain, lehen aldiz, sistematizatu egin ditu bide horiek, haietan sakontzeko helburuarekin, betiere.

Planak bost arlo hartzen ditu ardatz: Irakaskuntza eta Ikerkuntza; Kudeaketa eta Ordezkaritza; Gizartea eta Kultura; Komunitatea; eta Ebaluazioa. Gainera, 75 ekintza zehatz proposatzen ditu. Oso garrantzitsua da aipatzea bai dokumentua bai haren barnean jasotako lan-egitasmo handinahia prozesu parte-hartzaile baten emaitza izan direla. Prozesu horretan, unibertsitateko sektore guztiek lagundu dute, eta, bereziki, ikasleek. Nire aldetik, zoriondu egin nahi nituzke prozesuan zehar, batzordeen, bileren edo inkesten bidez, beren ekarpenak egin dituzten pertsona guztiak, eta eskerrak eman nahi nizkieke egin duten ahaleginagatik.

Unibertsitate-bizitzaren alderdi guztietan ikasleen erantzukidetasuna sendotzeak aukera ezin hobea ematen dio unibertsitateari bere barneko sektore guztiak integratzeko eta, horrekin batera, ikasleen iritziak unibertsitatearen gobernuan duen eragina areagotzeko.

Ziur naiz ezin konta ahala aukera eskaintzen dituen plan berri hau lagungarri izango zaigula unibertsitate irekiagoa eta integratzaileagoa eraikitzeko, arreta handiagoa eskainiko diena bere barneko kolektibo guztien gogoetei.

**Iñaki Goirizelaia**

UPV/EHUko errektorea

# 1 ATARIKOA

UPV/EHUk ezinbestekotzat dauka, Europako Unibertsitate Eremuaren baitan (EUE), ikasleek modu arduratsu eta aktiboan parte hartzea unibertsitatean; izan ere, bertan egingo dituzten ikasketek garapen pertsonala eta prestakuntza osoa sustatu behar dituzte, herritar arduratsuak izan daitezen, eta gizarte konplexu eta batik bat aldakor honetako arazo ekonomiko, politiko eta sozialei erantzun ahalko dien prestakuntza eskaini behar dute.

Aurreko horren ondorioz, UPV/EHUko Ikasleen Errektoreordetzak ikasleen partaidetza bultzatu nahi du unibertsitatearekin lotutako arlo guztietan, eta Partaidetza Plan bat prestatu du horretarako.

Plan hori prestatzeko, bilerak antolatu dira zenbait eztabaida-talderekin: ikasleak, irakasleak (II), administrazio eta zerbitzuetako langileak (AZP), ikastegietako ikasleen kontseiluetako kideak, partaidetzan adituak diren unibertsitateko norbanakoak eta UPV/EHUko Ikasleen errektoreorde ohiak.

Bildutako informazioari esker, sakontasunez ezagutu dugu ikasleen partaidetza zenbaterainokoa den, zer ekintzatan parte hartzen duten, zer partaidetza mota dauden, zer-nolako mugak dauden, zer-nolako jarrera eta interesa dagoen partaidetza modu jakin batzuei begira, etab. Beharrak antzemanda, Plan hau prestatu dugu, eta bertan jaso ditugu UPV/EHUko ikasleen partaidetza sustatzea helburu duten ekintzak.

# 2 PARTAIDETZA ETA EUROPAKO UNIBERTSITATE EREMUA (EUE)

Boloniako prozesuaren ildo nagusiak Pragako Adierazpenean (2001) hasi ziren prestatzen, eta, bertan, ministroek ikasleek EUEren eraikuntza-prozesuan eta unibertsitateetan parte hartu behar zutela aldarrikatu zuten, baita haren antolakuntzan eta edukian eragina izan behar zutela ere.

Interesgarria da, halaber, Berlineko Adierazpena (2003) aipatzea. Adierazpen horretan, ikasleek unibertsitatearen gobernantzan parte hartu behar dutela ez ezik, haiek Kalitatea Bermatzeko Sistema Nazionaletan sartu behar direla ere adostu zuten (eta neurri hori berriz aipatu zuten Bergeneko Konferentzian, 2005ean).

Gaur egun, Europako Unibertsitate Eremuaren (EUE) baitan, nabarmendu egiten dute ikasleen partaidetza unibertsitatean, bertan eskaintzen diren irakaskuntzen hartzaile huts gisa ez ezik, baita erakundeko kide aktibo eta erantzunkide gisa ere.

Alde horretatik, ikasleek goi mailako hezkuntzan izan behar duten gobernantza eta partaidetzari buruzko Budapesteko Aldarrikapenean (*The European Students' Union —ESU—, 2011*), honako hau dago jasota: «Ikasleak ez dira goi mailako hezkuntzaren kontsumitzaileak, haren elementu esanguratsuak baizik. Kontsumitzaileek ez dute zerikusirik prozesuen kudeaketan, baina ikasleak goi mailako hezkuntzaren kudeaketaren erantzunkideak dira. Ikasleak dira goi mailako hezkuntzaren kalitate-hobekuntzaren onuradun nagusiak, eta eragin handiagoa izan behar dute erabakiak hartzean eta gobernatzean».

Boloniako prozesuko estatu parte-hartzaileek adierazpen bat sinatu zuten Londresen, 2007ko maiatzean. Adierazpen horretan, agerian geratzen da goi mailako hezkuntzaren garrantzi soziala, hezkuntza horri lotutako politiken helburu nagusitzat aipatzen baitu honako hau: norbanakoak pertsonalki garatzeko eta ezagutza oinarri duen gizarte iraunkor eta demokratiko batean ekarpenak egiteko duen gaitasuna maximizatzea.

2011n, Hezkuntza Ministerioak zenbait neurri ezartzea sustatu zuen: ikasleei eta unibertsitateko titulududunei EUEn baitan erabateko arreta eskaintzeko zerbitzua; ikasleek unibertsitateko martxan parte hartzeko jardueren programak (arlo politikoan, elkarteetan, jarduera akademikoetan, kultura- eta gizarte-jarduereetan, boluntarioen ekintzetan, etab.); ikasle-elkarteen jarduereetan laguntzeko programaren plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa.

Orain arte egindako ikerketa askoren arabera, unibertsitatea ikaskuntza akademikorako eremutzat daukagu, hertsi-hertsian, eta prestakuntza teknikoko programak erabateko lehentasun dira ikasleentzat; hori horrela izanik, ikasleen partaidetzak unibertsitatean ohikoa baino askoz ere zabalagoa behar du izan, hau da, eskoletara joan, azterketak egin eta aldarrikapen sozial eta politikoetan aldizka parte hartu baino zerbait gehiago egin behar dute.

Alde horretatik, ikerketa batek baino gehiagok azpimarratzen dute ikasleek bete-betean parte hartzen dutenean eskuratzen duten zeharkako prestakuntzaren garrantzia. Hala bada, Longueirak eta Gonzálezek (2009) esaten dutenez, unibertsitateko etapan prestakuntza osagarria garrantzitsua da, hezkuntzako fase horretan baitute ikasleek eskaintza zabalena aukeran: hezkuntza-eskaintza handi eta anitza; unibertsitateak bere zerbitzu eta ikastegien bidez kudeatzen dituen askotariko jarduera-proposamenak, eta ikasle-elkarteak, kultura-elkarteak eta gobernuz kanpoko elkarteak. Haien hitzetan, gainera, prestakuntzako etapa horretan ikasleek barneratuta eduki behar dituzte prestakuntza horri probetxua ateratzeko oinarrizko gaitasunak, eta haien helburuak profil profesionala eratzeaz gain norbanakoaren garapen osoa faboratuko duten ezagutzak, ohiturak eta jarrerak eskuratzea izan behar du. Prestakuntza osagarri hori, gainera, «gehigarri» bat da ikasleen lan-profilean, egiaztatutako curriculumean ez ezik, baita giza gaitasun indibidualetan ere. Enpresek gutxieneko prestakuntza akademikoaz gain gaitasun orokorrei ere erreparatzen diete.

Bestalde, Cifrek (2010) ordezkaritza-karguetan aritu diren unibertsitateko ikasleekin egindako eztabaida-taldeen iritzien berri ematen digu; haien ustez, partaidetza ez da mugatu behar prestakuntza akademikora, eta nolabaiteko prestakuntza pertsonala sustatu behar du. Ikasleen iritziz, unibertsitateak funtsezko alderdietan eskaini behar du prestakuntza, hala nola autonomian, pentsamendu kritikoan edo unibertsitate-erakundeko kide izatearen sentipenean.

Beste egile batzuen hitzetan (Soler, Pallisera, Planas, Fullana eta Vilà, 2012), eskubide bat ez ezik, ahalmen handiko prestakuntza-prozesua ere bada ikasleek unibertsitatearen gobernuan eta funtzionamenduan parte hartzea, eta unibertsitateko bizitzako zenbait eremu eta unetan erabil daiteke, ikasleen prestakuntzaren eta profesionalizazioaren lehen mailako osagarri gisa. Alde horretatik, garrantzitsua da konturatzea ikasleek unibertsitateko arloetako prozesu eta egituretan parte hartzen badute egungo ikasketa-planetako graduko tituluen zeharkako gaitasunak lantzen dituztela.

# 3 UPV/EHUko IKASLEEN PARTAIDETZARI BURUZKO LEGE-ESPARRUA

Zenbait lege-dokumentuk arautzen dute ikasleen partaidetza unibertsitatean. Esparru horren baitan daude, zehazki, estatuko nahiz autonomiako araudia eta UPV/EHUko araudia.

**Abenduaren 21eko Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoak (ULO)**, honela dio arrazoien azalpenean:

> *«Ikasleak unibertsitate-jarduerako protagonista aktiboak dira, eta arau honen funtsezko zatia dira, haien oinarrizko eskubideak ezarriko baititu, gero unibertsitate bakoitzeko estatutuek zehaztuko dutenari kalterik egin gabe».*

Bestalde, Legeak zehaztu egiten du ikasleen partaidetza gobernu-organoetan eta ordezkaritza-organoetan, kide anitzekoetan zein kide bakarrekoetan, unibertsitate publiko nahiz pribatuetan.

**Apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak**, aurreko Lege Organikoa (ULO) aldatzen duenak, honako hau ezartzen du atarikoan:

> *«Gainera, Lege honek aurreikusita dauka unibertsitateko ikasleen estatutua prestatzea eta unibertsitateko ikasleen kontseilua sortzea, ikasleek unibertsitate-sisteman izan behar duten partaidetza egituratzeko».*
>
> *«Beste alderdi berri bat kirolari eta unibertsitate-hedakuntzari buruzko titulu bat sartzea da; izan ere, kirola nahiz beste jarduera batzuk unibertsitateko ikasleen prestakuntzan funtsezko alderdiak dira».*
>
> *«Gizarteak bere bizi-prozesuetan modu aktiboan parte har dezala eskatzen dio etorkizuneko unibertsitateari. Hori dela-eta, unibertsitatearen ekintzak ez du ezagutza transmititzera mugatu behar; iritzia sorrarazi behar du; gizarteko aurrerapenarekin duen konpromisoa erakutsi behar du, eta eredu izan ingurukoentzat».*

**Abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretuak, Unibertsitateko Ikasleen Estatutua onartzen duenak,** ikasleek unibertsitatean duten partaidetza areagotzeko mekanismoak ezartzen ditu; haien eskubideak onartzen ditu; kultura-, kirol- eta elkartasun-jarduerak balioesten ditu, eta unibertsitateko bizikidetza arautzen duen lege-esparrua aldatzeko konpromisoak ezartzen ditu, orain arte konstituzio-aurreko arau batek arautzen baitzuen. Partaidetzarekin lotutako eskubideen artean, honako hauek daude:

*II. kapitulua. Ikasleen eskubideak eta betebeharrak*

*7. art. Unibertsitateko ikasle ororen eskubideak.*

*«Aitorpen akademikoa jasotzea, unibertsitateko kultur-, kirol-, ordezkaritza-, elkartasun- eta lankidetza-jardueretan parte hartzeagatik, indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzetan».*

*«Unibertsitatean adierazpen-askatasuna eta biltzeko nahiz elkartzeko askatasuna izatea, inolako zuzeneko edo zeharkako diskriminaziorik gabe, hezkuntzaren kudeaketaren erantzunkidetasunaren eta norbanakoei nahiz unibertsitateko erakundeari begirako begirune proaktiboaren adierazpen gisa».*

*«Erantzukizun kolektiboaren baitan ordezkaritza aktiboa eta parte-hartzailea izatea Unibertsitateko gobernu- eta ordezkaritza-organoetan, Estatutu honetan eta dagozkion unibertsitateko antolamenduko eta funtzionamenduko estatutu edo arauetan ezarritako baldintzetan».*

*«Dagokien unibertsitatearen gobernu-organoen aukeraketan parte hartzea, dagokien estatutuan aurreikusitako baldintzetan».*

Bestalde, **otsailaren 25eko Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legeak** argi eta garbi aipatzen ditu ikasleen eskubideak eta betebeharrak.

*IV. kapitulua. Euskal Unibertsitate Sistemako ikasleak.*

*40. art. Xedapen orokorra.*

*«Euskal Herriko Unibertsitateko estatutuek eta publikoak ez diren unibertsitateen antolaketaren eta jarduteko moduaren gaineko arauek garatuko dituzte ikasleen eskubideak eta betebeharrak, horiek bermatzeko eta eraginkor bihurtzeko xedapen, neurri eta prozedurarik egokienak ezarriz».*

**Otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuak, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak onartzen dituenak**, egiten dio erreferentzia, baita ere, partaidetzari, titulu hauetan:

*I. TITULUA. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen izaera eta helburuak.*

*4. art. Hauek dira UPV/EHUren helburuak:*

*«Kalitatezko goi mailako irakaskuntza eskaintzea, ikasleen heziketa osoa bultzatzea, eta lanean hasteko beharrezkoa den prestakuntza ziurtatzea».*

*II. TITULUA. Unibertsitateko kideak.*

*13. art. Unibertsitateko kideek eskubide hauek izango dituzte, gainerako arauetan eta estatutu hauetako beste artikuluetan jasotakoez gain:*

*«UPV/EHUko gobernu eta ordezkaritza organoetan parte hartzea».*

*17. art. UPV/EHUko ikasleek eskubide hauek izango dituzte, indarrean dagoen legerian eta estatutu hauetan jasotako beste eskubide edo ahalmenez gain:*

*«Unibertsitatearen aitorpen akademikoa jasotzea ikasleen ordezkari izateagatik, baita ere unibertsitateko kultura eta kirol ekintzetan eta elkartasun eta lankidetza ekintzetan parte hartzeagatik».*

*«Ikasketen antolaketan parte hartzea, unibertsitateko organoen bitartez eta, halakorik gertatuz gero, ikerketako zereginetan laguntzea».*

*19. art. Hauek dira UPV/EHUko ikasleen betebeharrak:*

*«Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan modu aktiboan parte hartzea, onartutako prozedurak eta epeak errespetatuta».*

*III. TITULUA. Unibertsitatearen jarduna.*

*112. art. UPV/EHUk, campusen ikuspegi eta ekimenak kontuan hartuta, honako hauek sustatuko ditu:*

*«Unibertsitateko kideak elkartasuneko ekintzetan eta boluntario lanetan aritzea».*

Azkenik, **UPV/EHUko Ikasleen araudiak**, Gobernu Kontseiluak 2012ko ekainaren 21ean onartuak, jasota dauzka, halaber, ikasleen partaidetzarekin lotutako alderdiak:

*I. KAPITULUA. Ikasleen eskubideak eta betebeharrak.*

*2. art. UPV/EHUko ikasleen eskubideak*

*«Irakasleen eta ikertzaileen irakaskuntza-ebaluazioan eta administrazio-zerbitzuen ebaluazioan parte hartzea, bai eta ebaluazio horiei buruzko informazioa jasotzea ere, horretarako sortutako kalitate-batzordeetan beren ordezkariek izandako parte-hartzearen bidez».*

*«Mugikortasun-programetan parte hartzea, indarrean dagoen legediaren esparruan».*

*V. kapitulua. Ikasleen elkarteetan parte hartzeko mekanismoak*

*58. art.- Jarduerak*

*Unibertsitateko bizitzan parte hartzeko, ikasleen elkarteek beren intereseko jarduerak egingo dituzte, Estatutuen 4. artikuluan aurreikusitako UPV/EHUren helbururen bat lortze aldera.*

Legedi-esparrua aztertu ostean, ikasleen partaidetzari buruzko alderdi teoriko batzuk lantzeari ekingo diogu.

# 4 IKASLEEN PARTAIDETZA UNIBERTSITATEAN: KONTZEPTUA ETA ARLOAK

Unibertsitateko kide guztiek erantzukizuna daukagu unibertsitatearen eraikuntzan, eta prozesu horretako partaideak gara. Horra hor partaidetza kontzeptuaren jatorria. Zer da, baina, parte hartzea? Ez da erraza definitzen, zenbait alderdi eta elementu baitaude tartean, honako hauek, besteak beste:

— zer erakundetan parte hartzen den
— pertsonen arteko harremana erregulatzen duten araudiak eta arauak
— testuinguruaren berariazko ezaugarriak
— gertaeren erritmoak
— kide direnen interesak.

Zenbait arlotan parte har daiteke, eta zenbait inplikazio mailarekin. Inplikazioa txikia izan daiteke; *egotea edo bertaratzea* dira, besteak beste, halako inplikazioaren adibide. Baina handia ere izan daiteke, esaterako, *norbanakoa prozesuko eragile bihurtu,* eta *haren diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan parte hartu nahi duenean*.

Partaidetza arloei dagokienez, gure ustez, ikasleek arlo hauetan parte har dezakete: Irakaskuntza eta Ikerkuntza, Kudeaketa eta Ordezkaritza, Gizartea eta Kultura, Komunitatea eta Ebaluazioa *(1. irudia)*.




1. irudia. Ikasleen partaidetza arloak unibertsitatean

## 4.1. PARTAIDETZA IRAKASKUNTZAREN ETA IKERKUNTZAREN ARLOAN

Irakaskuntzan oinarritutako hezkuntza-eredutik ikaskuntzan oinarritutako eredura igarotzea aldaketa handia izan da. Gaur egun, ikasleei irakasgaiaren gainean gogoetatzeko eta aztertzeko aukera emango dioten metodo eta estrategiak bilatu behar dituzte irakasleek, eta eduki horiek ikerketetan, problemen ebazpenenetan eta erabakietan aplikatzeko jarduerak proposatu behar dituzte.

Ikasleak hainbat diziplinaren ezagutzan prestatu behar ditugu, ikasten dutena ulertzeko gai izan daitezen, baita hura eguneratzeko eta bizkor alda daitezkeen egoera berrietara egokitzeko gai ere. Ikaskuntza prozesu eraikitzaile gisa hartzen dugu, ikerketarekin zuzenean lotutako prozesu gisa.

Alde horretatik, UPV/EHUren urteroko eskaintza zabalaren baitan graduondoko ikasketak egitea aukeratzen duten guztiek parte hartzen jarraitzen dute.

## 4.2. PARTAIDETZA KUDEAKETAREN ETA ORDEZKARITZAREN ARLOAN

Gobernu-organoetako ordezkaritza eta partaidetzari dagokio, eta estatuko araudietan, araudi autonomikoetan eta UPV/EHUko araudietan islatuta ageri da, legedi-esparruari buruzko puntuan adierazitako moduan. Kudeaketari dagokionez, ikasleek unibertsitatean oro har parte har dezakete (Unibertsitateko Klaustroa, Ikasleen Kontseilua...), baita campusetan ere (Campuseko Batzarra, Ikasleen Kontseilua...), eta barne-erakundeetan, hala nola ikastegietan (Ikastegiko Batzarra, ikastegiko batzordeak, mailako ordezkariak...) eta sailetan (Batzorde Iraunkorra...).

Testuinguru horretan, kudeaketan parte hartzea paregabea da ikasleek zuzenean edo zeharka esku hartu ahal izateko, ordezkarien bidez, erakundeen erabakietan. Horrek sustatu egiten du kulturak trukatzea, taldeek interakzioan jardutea, zenbait ikuspegik elkar aditzea eta arazoetarako irtenbide posibleak bilatzea.

## 4.3. PARTAIDETZA GIZARTEAREN ETA KULTURAREN ARLOAN

Arlo honetan sartzen dira kulturarekin eta kirolarekin zerikusia duten jarduera guztiak. Halakoek ez dute nahitaez egon behar zuzenean lotuta arlo akademikoko jarduerekin.

UPV/EHUn, Gipuzkoako Campuseko Kultura Hedapenerako Zerbitzua eta Arabako nahiz Bizkaiko campusetako Kultura Kudeaketarako Bulegoak arduratzen dira kultura-jarduerak programatzeaz, kudeatzeaz, prestatzeaz eta hedatzeaz. Ikasleek, irakasleek zein administrazio eta zerbitzuetako langileek proposa ditzakete halako jarduerak, gero Unibertsitate Hedapenerako Batzordearen bileretan azter ditzaten sustatzeko eta babesteko.

Bestalde, kirol-jarduerekin unibertsitateko kide guztien bizi-kalitatea hobetu, eta prestakuntza pertsonala bultzatu nahi da.

## 4.4. PARTAIDETZA KOMUNITATEAREN ARLOAN

Unibertsitatea ikasleen prestakuntza osoaz arduratzen den gizarte-eragilea da, eta jarduera batzuk eskaini behar ditu gizarterako hedakuntzaren arloaren baitan. Garapenerako lankidetzari, herritarren partaidetzari eta boluntariotzari lotutako jarduerez ari gara. Alde horretatik, UPV/EHUk, 2007ko otsailaren 8ko Gobernu Kontseiluan, Unibertsitateen Garapenerako Lankidetza-arloko Jokabide Kodeari atxikitzea onartu zuen (kode hori Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Biltzarrak-CRUE onartu zuen, 2006ko uztailaren 23an), eta, hortaz, sustatutako jarduerak kode horretan ezarritakora egokitzeko nahia erakutsi zuen.

UPV/EHUko Gizarte Erantzukizuneko eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetzaren arabera: *«Unibertsitateak protagonista izan behar du giza garapeneko proiektuetan, eta estrategia berriak sortu eta gauzatu behar ditu, gizarte justuago eta zabalago bat eraikitzeko boluntariotzaren eta lankidetzaren bidez eta hirugarren sektorean lan eginez».*

## 4.5. PARTAIDETZA EBALUAZIOAREN ARLOAN

Arlo hori gero eta garrantzitsuagoa da, gaur egun ikasleek goi mailako hezkuntzako ebaluazio-prozesuetan zeregin aktiboa izan dezaketela uste baita, bai tituluen kalitatea ebaluatzeko sistemetan, baita ikastegien edo unibertsitateen kalitatea ebaluatzekoetan ere.

Alde horretatik, esan dezakegu ikasleen partaidetza funtsezkoa dela Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak (ANECA) ikasketa-planak egiaztatzeko ebaluazio-batzordeen eta Aholku Kontseiluaren bidez gauzatzen duen prozesuan. Era berean, UPV/EHUko Ebaluazio Instituzionaleko Zerbitzuak (SEI/EIZ) bi alderdiko eragile ebaluatzailetzat dauka ikaslea:

- Prestakuntza Programaren hartzaile nagusi gisa, gogobetetze-inkesten bidez.
- Erakundeen Ebaluaziorako Programako partaide gisa. Partaidetza ondoz ondoko hiru unetan gauza dezake.

## 4.6. IKASLEEN PARTAIDETZAREN GAKOAK

Ikasleek zer arlotan parte har dezaketen azaldu ostean, argi adierazi nahi dugu gure ustez partaidetza sustatzeko funtsezko eta ezinbesteko baldintza dela **motibazioa**; hau da, ikasleek parte hartu nahi izatea, parte hartzeko gogoa edukitzea. Eta motibazioa beharrezkoa bada ere, ez da nahikoa, ezinbestekoa baita ikasleek **parte hartzen jakitea**, parte hartzeko proposamenean esku hartu ahal izateko ezagutza, gaitasun eta trebetasun batzuk izatea. Hori dela-eta, ikasleak partaidetzarako **prestatu** behar ditugu. Oraingoz, partaidetzarako beharrezko bi baldintza aipatu ditugu: moti-

bazioa eta prestakuntza. Horiez gain, ezinbestekoa da ikasleek **parte hartu ahal izatea**, hau da, dagozkien eginkizunetan parte hartu ahal izateko behar dituzten modu eta mekanismoak eskaintzea.

Aurreko guztia aintzat hartuta, erakundeak, ikasleen partaidetza handia eta eraginkorra lortze aldera, modu aktiboan parte hartzeko *motibatu* behar ditu ikasleak; nola, noiz eta non parte hartu *jakinarazi* behar die, eta arlo guztietan parte hartzeko gaitasuna eskuratzeko *prestatu* behar ditu.

# 5 PARTAIDETZA-PLANAREN HELBURUAK

Plan honen helburu nagusia *UPV/EHUko ikasleen partaidetza sustatzea da*. Helburu orokor hori lortzeko, helburu zehatzagoak ezarriko ditugu, aurretik aipatutako bost arloak erabilita.

## 5.1. IRAKASKUNTZAREN ETA IKERKUNTZAREN ARLOA

Arlo honetan, errektoreordetzek, ikastegiek eta sailek antolatutako jarduera akademikoetako partaidetza zabaltzea lortu nahi da. Zehazki, hauek dira helburuak:

— Ikasleei begirako komunikazio- eta informazio-bideak hobetzea haien prestakuntza-prozesuan.
— Ikasleek tutoretza-programetan parte har dezaten sustatzea.
— Ikasleek mugikortasun-programei buruzko informazioa hobeto ezagutzea.
— Ikasleei ezagutzera ematea IKD eredu pedagogikoa, eta eredu hori ezartzeko haien inplikazioa lortzea.
— Ikasleen artean lan arloko etorkizunarekin lotutako jarduerak sustatzea.
— Ekiteko-aren kultura eta kontzeptu honekiko programa erlazionatuetako parte-hartzea sustatzea
— Irakaskuntzarekiko jarduera paraleloak antolatzea ikasleentzat, haien prestakuntza akademikorako osagarriak izango direnak.
— Ikerketarako bokazioa sustatzea, baita ikastegiek, sailek eta institutuek antolatutako ikerketa-jardueretako partaidetza ere.

## 5.2. KUDEAKETAREN ETA ORDEZKARITZAREN ARLOA

Errektoreordetzekin, ikastegiekin, sailekin eta ikasle-kontseiluekin lotutako kudeaketa- eta ordezkaritza-jardueretan ikasleen partaidetza areagotzea, helburu hauen bitartez:

— Ikasleen ordezkarien eta ikasleen arteko koordinazioa eta komunikazio-bideak hobetzea.
— Ikasleek ordezkaritza-organoak eta euren eskubide nahiz betebeharrak hobeto ezagutu ditzaten lortzea.
— Ikasleek kudeaketan duten partaidetza aitortzea, bai curriculumean, bai erakundean.
— Unibertsitateko organoetan ikasleak hautatzeko prozesuen kudeaketa hobetzea (klaustroa, Gobernu Kontseilua, batzarrak, batzordeak, ikasle-kontseiluak, ordezkariak...).
— Taldeko/gelako ordezkarien aukeraketa sustatzea, ikasleengandik hurbilen dauden pertsona gisa.

## 5.3. GIZARTEAREN ETA KULTURAREN ARLOA

Arlo honetako helburuek errektoreordetzek, ikastegiek, sailek eta ikasle-kontseiluek antolatutako gizarte- eta kultura-ekintzetan sustatu nahi dute ikasleen partaidetza:

— Aurreikusitako akademiaz kanpoko jardueren eskaintza ikasleei ezagutarazteko bideak hobetzea.
— Ikasleen artean gizarte- eta kultura-jarduerak sustatzeko ekimena bultzatzea.
— Unibertsitateko elkartegintza sustatzea.
— Ikasleen eta UPV/EHUren arteko loturak sustatzea eta zabaltzea, gizarte- eta kultura-ekintzen bidez.

## 5.4. KOMUNITATEAREN ARLOA

Ikasleen partaidetza areagotzea errektoreordetzek, ikastegiek, sailek eta ikasle-kontseiluek antolatutako gizarte-hedakuntzako jardueretan, helburu hauen bitartez:

— Ikasleen artean boluntariotza sustatzea.
— Ikasleei boluntariotzarekin eta lankidetzarekin lotutako UPV/EHUko jarduerak ezagutaraztea (GKEak, laguntzen deialdia, etab.).
— UPV/EHUra datozen mugikortasun-programetako ikasleei laguntzea eta babesa ematea, errazago integra daitezen gizartean nahiz unibertsitatean.

## 5.5. EBALUAZIOAREN ARLOA

Arlo honetan, ikasleen partaidetza hedatu eta sustatu nahi da goi mailako hezkuntzaren ebaluazio-prozesuetan (gogobetetze-inkestak, iritzi-inkestak, laneratze-inkestak, auto-ebaluazioa).

# 6 PARTAIDETZA-PLANAREN METODOLOGIA

Azterketa honek zenbait fase izan ditu, eta bilerak egin ditugu adituekin, ikasleekin, irakasleekin eta administrazio eta zerbitzuetako langileekin. *1. koadroan*, azterketaren faseak ageri dira, laburtuta.

| |
|---|
| — 1. fasea. *Adituekin bilera* |
| — 2. fasea. *Eztabaida-taldeak. Lehen saioak: AZP, II, ikasleak, ikasle-kontseiluak* |
| — 3. fasea. *UPV/EHUko ikasleentzako inkesta* |
| — 4. fasea. *Eztabaida-taldeak. Lehen saioak: AZP, II, ikasle-kontseiluak* |
| — 5. fasea. *UPV/EHUko Ikasleen I. Partaidetza Planaren behin betiko idazketa* |

1. koadroa. Azterketaren faseak

## 6.1. 1. fasea. ADITUEKIN BILERA

Partaidetza Plana diseinatzen hasteko, zenbait bilera egin ditugu unibertsitateko aditu batzuekin, eta UPV/EHUko Ikasleen arloko bost errektoreorde ohien laguntza izan dugu; azken horiek unibertsitatean ikasleen partaidetza hobetzeko ideiak aurkeztu zizkiguten.

Bilera horiek ideiak biltzeko eta kontrastatzeko antolatu genituen, baita plana diseinatzeko eta prestatzeko alderdi metodologikoak zehazteko ere.

## 6.2. 2. fasea. EZTABAIDA-TALDEAK. LEHEN SAIOAK: AZP, II, IKASLEAK, IKASLE-KONTSEILUAK

UPV/EHUko ikasleen partaidetzari buruzko diagnostiko bat egiteko asmoz, lanerako eta eztabaidarako taldeak antolatu ditugu unibertsitateko zenbait talderekin (AZP, II, ikasleak, ikasle-kontseiluak), campus guztietan.

Talde horietan, partaidetzarekin lotutako alderdi bati baino gehiagori buruz eztabaidatu dugu: partaidetza maila; zer motatako jardueretan parte hartzen den; parte hartzeko beste modu posible batzuk; partaidetza faboratzen edo mugatzen duten arrazoiak edo faktoreak, eta nola areagotu daitekeen ikasleen partaidetza unibertsitatean. *(I. eranskina)*

Ikasleen taldean ikastegi eta maila guztietako ikasleak ordezkatuta egotea nahi izan dugu, eta ordezkaritza parekidea izatea generoaren ikuspegitik. Gero, lan-talde bat

osatu dugu UPV/EHUko ikasle-kontseiluetako ordezkariekin. Ikasleen Errektoreordetzaren ustez, ikasle horiek gainerakoen ekarpenak osa ditzakete, eskarmentua baitute partaidetzaren arloan. Azkenik, beste bi bilera egin ditugu unibertsitateko talde hauekin: irakasle eta ikertzaileak —II— eta administrazio eta zerbitzuetako langileak —AZP— *(ikusi 2. koadroa)*.

| UPV/EHUko taldeak | Tokia | Partaide kop. |
|---|---|---|
| Ikasleak | Donostia | 10 |
| | Gasteiz | 7 |
| | Bilbo | 8 |
| | Leioa | 6 |
| Ikasle-kontseiluak | Eibar | 7 |
| Irakasleak eta Ikertzaileak | Eibar | 8 |
| Administrazio eta zerbitzuetako langileak | Eibar | 10 |

2. koadroa. Lehen saioetako taldeak eta partaide kopurua

## 6.3. 3. FASEA. UPV/EHUko IKASLEENTZAKO INKESTA

Diagnosi-fasea osatzeko, inkesta bat egin diegu, euskaraz nahiz gaztelaniaz, UPV/EHUko ikasle guztiei (2. eranskina). Aurretik aipatutako bileretan landutako gaiei buruzko galderak egin dizkiegu, eta, haiei esker, partaidetzak zer arlo edota jardueratan duen garrantzi handien jakin ahal izan dugu. Azkenik, partaidetza areagotzea ahalbidetuko duten hobekuntza-iradokizun batzuk proposatu dituzte.

Kontsulta kuantitatiboa egiteko, zentsu-itxurako azterketa bat egin dugu, inkesta UPV/EHUn matrikulatuta zeuden (edo egonak ziren) ikasleei igorrita.

Inkestak aplikazio informatiko batera irauli ditugu, ikasle guztiei bidalitako helbide elektroniko baten bidez sartutako «link» bat erantsi ahal izateko. «Inkesta erraza» aplikazio informatikoa erabili dugu, UPV/EHUk harreman komertzialak dituelako enpresa horrekin eta, hortaz, errazagoa zelako zerbitzuarekin harremanetan jartzea eta hura kontratatzea. IKTen Gerenteordetzaren laguntzaz (Informazio eta Komunikazioko Teknologiak), inkestak Intranetez igorri ziren 2011ko uztailaren 17an, eta kontsulta 2011ko irailaren 16an amaitu zen.

Inkesta UPV/EHUko 53.300 ikasleri igorri diegu. 4.982 pertsonak aplikazioa ireki dute (1.955ek, euskaraz, eta 3.027k, gaztelaniaz), eta horietatik 4.178k erantzun dute, 1.564k, euskaraz, eta 2.614k, gaztelaniaz. Datu horiek gutxienez galdera bati erantzun diotenen kopuruari dagozkio, baina 2.380 pertsonak bakarrik bete dute inkesta osoa (866k, euskaraz, eta 1.514k, gaztelaniaz).

Inkestak estatistikoki ustiatzeko, aplikazio estatistikoak berak aurretiko datu orokor batzuk eman ditu (aplikazioak lagin osoaren maiztasun eta ehunekoen banaketak bakarrik ematen ditu, eta ez du uzten ez gurutzaketak egiten, ez estatistikoak aplikatzen zenbakizko aldagaietarako).

Hortaz, aplikazio informatikotik Excel formatuko fitxategi batzuk lortu ditugu, eta SPSSWIN pakete estatistikotik inportatu ditugu, prozesatzeko eta tauletan jartzeko. Modu horretan, informazio xehatuagoa lortu dugu: estatistiko deskribatzaileak (maiztasunak, ehuneko horizontal eta bertikalak), zentrorako joeraren neurriak (batez bestekoa, mediana eta moda) eta sakabanatze-neurriak (desbideratze tipikoa); estatistika inferentzialeko probak (nagusiki, chi berbidura gurutzaketa); eta aldagai anitzeko analisia (esaterako, baliokidetza sinpleen faktore-analisia). Datuak dokumentu honetan jasotzean, kontsultatutako aldagai guztiak deskribatu ditugu, beharrezko estatistikoak erabiliz aldagai bakoitzaren izaeraren arabera (maiztasunen banaketa, batez bestekoa, etab.); nolanahi ere, aldagaien arteko harreman edo eragin posibleak ezagutzeko egin ditugun gurutzaketetatik, estatistikoki interesa dutenak bakarrik aipatu ditugu.

## 6.3.1. Laginaren ezaugarriak

Lagina 2.380 pertsonak osatzen dute, nahiz eta guztiek ez dieten galdera guztiei erantzun. Batetik, aipatu beharra dago erantzun bat baino gehiago onartzen duten zenbait galdera daudela; halakoetan, ikasle guztiek ez dute neurri berean erantzun, eta ez dute jarduera kopuru bera adierazi, besteak beste. Bestetik, izaera soziodemografikoko galderetan ere bada bariazio txikirik.

### a) Sexua

«Sexua» aldagaiari erantzun dieten 2.380 pertsonatatik, 1.450 emakumeak dira (% 61), eta 930, gizonak (% 39).




1. grafikoa. Sexua

## b) Adina

Laginaren banaketa adinaren arabera aztertuz gero:

— % 28,0k 18-20 urte dauzka (667 ikasle).
— % 39,4k 21-24 urte dauzka (937 ikasle).
— % 22,0k 25-30 urte dauzka (524 ikasle).
— % 6,9k 31-40 urte dauzka (164 ikasle).
— % 2,8k 41-50 urte dauzka (67 ikasle).
— % 0,9k 50 urtetik gora dauzka (21 ikasle).




2. grafikoa. Adina

## c) Matrikulatuta zaude?

Inkesta bete zutenean, hamar pertsonatik bederatzi UPV/EHUn matrikulatuta zeuden (% 88,9). Argitu beharra dago inkestak bidaltzeko erabilitako ikasle-direktorioak ez duela bereizten ikaslea matrikulatuta zegoen ala ez inkesta egitean. Hala ere, datuen arabera ikus dezakegunez, gehienak matrikulatuta zeuden.




3. grafikoa. Matrikulatuta zaude?

## d) Zein campusetan ikasten duen (edo ikasi duen)

Inkestan parte hartu duten norbanakoen % 42,6 Bizkaiko Campuseko ikastegiren batean dago matrikulatuta; % 36,6, Gipuzkoako ikastegiren batean, eta % 21,2, Arabako Campuseko ikastegiren batean.




4. grafikoa. Zein campusetan ikasten duen (edo ikasi duen)

## e) Zein ikastegitan ikasten duen (edo ikasi duen)

*1. taulan*, inkestari erantzun diotenek zer ikastegitan ikasten duten ikus dezakegu, zehazki, zenbat pertsonak ikasten duen ikastegi bakoitzean termino absolutuetan, campus bakoitzari begira dagokion ehunekoa eta, azkenik, Euskal Herriko Unibertsitateko hiru campusetako ikastegiren batean matrikulatuta egonik inkesta bete duten ikasle guztiei begira dagokion ehunekoa.

***Matrikulatutako ikastegitan***

| **Arabako Campuseko ikastegia** | **kop.** | **% (Campusa guztira)** | **% EHU/UPV guztira** |
|---|---|---|---|
| Gasteizko Enpresa Ikasketen UE | 40 | 8,0 | **1,7** |
| Gasteizko Ingeniaritza UE | 89 | 17,8 | **3,8** |
| Gasteizko Irakasleen UE | 55 | 11,0 | **2,3** |
| Gasteizko Gizarte Langintzako UE | 23 | 4,6 | **1,0** |
| Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea | 36 | 7,2 | **1,5** |
| Farmazia Fakultatea | 82 | 16,4 | **3,5** |
| Letren Fakultatea | 168 | 33,7 | **7,1** |
| Gasteizko Medikuntza Fakultatearen Irakasgunea | 4 | 0,8 | **0,2** |
| Arabako Esperientzia Gelak | 2 | 0,4 | **0,1** |
| **Guztira/Araba** | **499** | **100,0** | **21,2** |

| **Bizkaiko Campuseko ikastegia** | **kop.** | **% (Campusa guztira)** | **% EHU/UPV guztira** |
|---|---|---|---|
| Bilboko Ingeniaritza GET | 211 | 20,8 | **8,9** |
| Nautika eta Itsasontzi-makineria GET | 7 | 0,7 | **0,3** |
| Bilboko Enpresa Ikasketen UE | 30 | 3,0 | **1,3** |
| Leioako Erizaintzako UE | 15 | 1,5 | **0,6** |
| Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE | 105 | 10,4 | **4,4** |
| Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE | 24 | 2,4 | **1,0** |
| Bilboko Irakasleen UE | 64 | 6,3 | **2,7** |
| Lan Harremanen UE | 24 | 2,4 | **1,0** |
| Arte Ederren Fakultatea | 27 | 2,7 | **1,1** |
| Zientzia eta Teknologia Fakultatea | 204 | 20,1 | **8,6** |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea | 77 | 7,6 | **3,2** |
| Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea | 139 | 13,7 | **5,9** |
| Medikuntza eta Odontologia Fakultatea | 57 | 5,6 | **2,4** |
| Zuzenbide Fakultatea-Bizkaiko Atala | 29 | 2,9 | **1,2** |
| Bizkaiko Esperientzia Gelak | 1 | 0,1 | **0,0** |
| **Guztira/Bizkaia** | **1.014** | **100,0** | **42,6** |

| Gipuzkoako Campuseko ikastegia | kop. | % (Campusa guztira) | % EHU/UPV guztira |
|---|---|---|---|
| Arkitektura GET | 74 | 8,6 | 3,1 |
| Donostiako Enpresa Ikasketen UE | 87 | 10,1 | 3,7 |
| Donostiako Erizaintzako UE | 44 | 5,1 | 1,9 |
| Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE | 21 | 2,4 | 0,9 |
| Donostiako Irakasleen UE | 94 | 10,9 | 4,0 |
| Donostiako UE. Politeknikoa | 165 | 19,2 | 7,0 |
| Zuzenbide Fakultatea | 33 | 3,8 | 1,4 |
| Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | 89 | 10,3 | 3,8 |
| Informatika Fakultatea | 80 | 9,3 | 3,4 |
| Psikologia Fakultatea | 125 | 14,5 | 5,3 |
| Kimika Fakultatea | 44 | 5,1 | 1,9 |
| Gipuzkoako Esperientzia Gelak | 4 | 0,5 | 0,2 |
| **Guztira/Gipuzkoa** | **860** | **100,0** | **36,6** |
| **GUZTIRA** | **2.373** | | **100,0** |

1. taula. Ikasleen banaketa ikastegien eta campusen arabera

### f) Zein da matrikulatuta dagoen (edo egon den) mailarik altuena

Azkenik, inkestari erantzun dioten UPV/EHUko ikasleak matrikulatuta dauden (edo egon diren) mailarik altuena zein den jakin nahi izan dugu:

— % 18,0 1. mailan matrikulatuta dago.
— % 16,5 2. mailan matrikulatuta dago.
— % 24,3 3. mailan matrikulatuta dago.
— % 15,0 4. mailan matrikulatuta dago.
— % 12,9 5. mailan matrikulatuta dago.
— % 1,6 6. mailan matrikulatuta dago.
— % 11,4 graduondokoren batean matrikulatuta dago.
— % 0,2 Esperientzia Geletan matrikulatuta dago.




5. grafikoa. Zein den matrikulatuta dagoen (edo egon den) mailarik altuena

## 6.4. 4. fasea. EZTABAIDA-TALDEAK. BIGARREN SAIOAK: AZP, II, IKASLEAK, IKASLE-KONTSEILUAK

Diagnostikoa amaituta (1., 2. eta 3. faseak), bigarren aldiz bildu gara unibertsitateko taldeekin, *3. koadroan* ikus daitekeen moduan. Fase honen helburua aurrekoetako emaitzak ezagutaraztea, aztertzea eta eztabaidatzea izan da, baita parte hartzeko ekintzak zehaztea ere.

| UPV/EHUko taldeak | Tokia | Partaide kop. |
|---|---|---|
| Ikasleak | Donostia | 9 |
| | Gasteiz | 4 |
| | Bilbo | 5 |
| | Leioa | 6 |
| Ikasle-kontseiluak | Bilbo / Donostia | 3/2 |
| Irakasleak eta ikertzaileak<br>Administrazio eta zerbitzuetako langileak | Eibar | 4/2 |

3. koadroa. Bigarren saioetako taldeak eta partaide kopurua

## 6.5. 5. fasea. PARTAIDETZA-PLANAREN BEHIN BETIKO IDAZKETA

Diagnostikoa eginda eta emaitzak alderatu eta eztabaidatuta, UPV/EHUko Ikasleen I. Partaidetza Plana prestatzeari eta idazteari ekin diogu.

# 7 EMAITZAK

Hasteko, parte hartzeko moduen gaineko lehenengo eztabaida-saioetan izandako emaitzak aurkeztuko ditugu; gero, on-line inkestaren emaitzak, eta azkenik, azken eztabaida-saioen emaitzak.

## 7.1. LEHENENGO EZTABAIDA-SAIOAK

Atal honetan, partaidetzarekin lotutako alderdi bati baino gehiagori buruzko eztabaiden emaitzak bildu ditugu: partaidetza maila; zer motatako jardueretan parte hartzen den; parte hartzeko beste modu posible batzuk; partaidetza faboratzen edo mugatzen duten arrazoiak edo faktoreak, eta nola areagotu daitekeen ikasleen partaidetza unibertsitatean.

Ikasleek unibertsitatean parte hartzen duten galdetzean, ikasleek baietz erantzun dute, eta gainerako taldeek berretsi egin dute erantzun hori, baina partaidetza eskasa eta ikastegien arabera desberdina dela argitu dute.

Jarduera motei dagokienez, ikasleek aurkeztutako bost arloetan parte hartzen dutela baieztatu dute. Bestalde, gainerako taldeen ustez, nagusiki kudeaketa/ordezkaritzan eta jarduera soziokulturaletan parte hartzen dute. Ikasleen errektoreorde ohiek nahiz administrazio eta zerbitzuetako langileek bereziki nabarmendu dute ikasleen partaidetza oso handia dela unibertsitateko elkarteetan.

Parte hartzeko beste modu batzuei dagokienez, hauek nabarmendu dituzte: parekoen arteko tutoretza (II eta ikasleak); mugikortasun-programak (ikasleak eta ikasle-kontseiluak); partaidetza sustatzeko informazio- eta sentiberatze-jarduerak (AZP); koordinazioko eta ordezkaritzako egituren arteko lotura (II), eta ikasteko teknikak, lanerako teknikak, lan-bilaketa eta curriculumaz kanpoko halako beste prestakuntza batzuk (ikasle-kontseiluak).

Partaidetza errazten duten ekintzen artean, honako hauek aipatu dituzte: partaidetza aitortzea (ikasleak, II, AZP), informazioa egokiro bideratzea (AZP, ikasle-kontseiluak) eta ikasleek jardueren diseinuan parte hartzea (errektoreorde ohiak). Partaidetzari mesede egiten ez dioten alderdiei dagokienez, honako hauek aipatu dituzte: aitorpena urria dela (talde guztiak), ez dagoela informaziorik (II, ikasleak, ikasle-kontseiluak, AZP) eta ikasleek ez dutela beren burua UPV/EHUko kidetzat hartzen (errektoreorde ohiak, ikasle-kontseiluak).

Partaidetza areagotzeko proposamenen artean, hauek dira nabarmentzekoak: partaidetzaren aitorpena hobetzea (ikasleak, ikasle-kontseiluak, AZP eta II), ikasleen artean UPV/EHUko kidetza-sentimendua sustatzea (ikasleak, ikasle-kontseiluak), parekoen arteko tutoretzako programak bultzatzea (II, AZP), ikasleengandik hurbil dauden elkarteak sortzea (errektoreorde ohiak, ikasleak) eta ikasleei euren erabakiak hartzeko ekimenak eskaintzea (errektoreorde ohiak).

## 7.2. ON-LINE INKESTEN EMAITZAK

Euskal Herriko Unibertsitateko hamar ikasletik lauk unibertsitateko jardueraren batean parte hartzen dutela (edo parte hartu dutela) adierazi dute, eta gainerako seiek, berriz, ez dutela parte hartzen.




6. grafikoa. Ikasleen partaidetza unibertsitateko jardueretan

Ikasleen partaidetza aldatu egiten da adinaren arabera. Hala bada, *2. taulan* ikus dezakegunez, gazteenak eta zaharrenak dira gutxien parte hartzen dutenak. 18-20 urtekoen % 67,5ek ez du unibertsitateko jardueretan parte hartzen, eta % 32,5ek bai. 21 eta 24 urte bitarteko ikasleen artean, berriz, % 55,9k unibertsitateko jardueretan parte hartzen duela adierazi du, eta % 44,1ek erantzun du aurkakoa. 25-30 urteko ikasleen kasuan, parte hartzen dutela diotenen kopurua parte hartzen ez dutela diotenen kopuruaren antzekoa da. Hogeita hamar urtetik gorako ikasleen artean, ugariagoak dira parte hartzen ez dutenak; nolanahi ere, argitu beharra dago ikasle horiek galdera horri erantzun dioten ikasle guztien % 10 inguru besterik ez direla. Ikasle gazteenek gutxi parte hartzeak zerikusia izan dezake unibertsitateko jardueren gainean izan dezaketen informazio- eta ezagutza-gabeziarekin; horrez gainera, unibertsitatera iritsi berri direnean, zailtasunak eta aldaketak izaten dituzte, eta horiek mugatu egiten dute, hein batean, eskola-orduetatik kanpo antolatutako jardueretan parte hartzea. Unibertsitateko hasiera gaindituta, badirudi informazio gehiago dutela edo hobeto antolatuta daudela ikasketak unibertsitateko jarduerekin bateratzeko.

| | **18-20 urte bitartean** | | **21-24 urte bitartean** | | **25-30 urte bitartean** | | **31-40 urte bitartean** | | **41-50 urte bitartean** | | **50 urtetik gora** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **n** | **%** | **n** | **%** | **n** | **%** | **n** | **%** | **n** | **%** | **n** | **%** |
| Bai | 217 | 32,5 | 524 | 55,9 | 266 | 50,8 | 71 | 43,3 | 26 | 38,8 | 10 | 47,6 |
| Ez | 450 | 67,5 | 413 | 44,1 | 258 | 49,2 | 93 | 56,7 | 41 | 61,2 | 11 | 52,4 |
| **Guztira** | **667** | **100,0** | **937** | **100,0** | **524** | **100,0** | **164** | **100,0** | **67** | **100,0** | **21** | **100,0** |

2. taula. Ikasleen partaidetza adinaren arabera

### 7.2.1. Zer motatako ekintza/jardueretan parte hartzen duten

Unibertsitateko ikasleek zer motatako ekintza edo jardueretan parte hartzen duten jakiteko, lehenik eta behin beren kabuz zer ekintza mota aipatu dituzten ezagutu nahi izan dugu. Ikasleek askotariko ekintzak eta jarduerak aipatu dituzte, eta haien tipologiari buruzko panoramika bat egin ahal izan dugu.

Ikasleek aipatutako ekintzak taldekatzean, nabarmentzekoak dira irakaskuntzaren arlokoak, eta gero, unibertsitateko bizitzarekin zerikusia dutenak. Neurri txikiagoan, ikasleen ordezkaritzarekin lotutako arloetan eta boluntariotzako jardueretan ere parte hartzen dutela adierazi dute, nahiz eta gizartearekin lotutako jarduerak diren garrantzia txikienekoak, berez emandako erantzunetan behintzat.

Hala bada, UPV/EHUko ikasleek ekintza edota jarduera hauetan parte hartzen dute:

**a) Irakaskuntza**

— Solasaldiak eta hitzaldiak.
— Ikastaroak, mintegiak eta jardunaldiak: ikasleen esanetan, mota askotako ikastaro eta mintegietan parte hartzen dute, eta nabarmentzekoa da unibertsitatearen udako ikastaroetara joaten direla baieztatzen dutenen kopurua. Lan arloarekin zerikusia duten prestakuntza-ikastaroak, tailerrak eta praktikak garrantzitsuak dira, baita enpresatara bisitak ere.
— Irakasleak ebaluatzeko inkestak.
— Mugikortasun-programak: batik bat Erasmus.

**b) Unibertsitateko bizitza**

— Kirol-jarduerak: jarduera aipatuenak dira, unibertsitateko bizitzako arlo garrantzitsuenetako bat. Gainera, dirudienez saskibaloiko, areto-futboleko eta, bereziki, futboleko txapelketek biltzen dituzte kirol-jarduera asko.
— Kultura-jarduerak: ikasleek kontzertuetara eta zinemara joaten direla adierazi dute, eta batzuek unibertsitateko asteazken kulturaletako jardueretan parte hartzen dutela adierazi dute.
— Ate Irekien Jardunaldiak.
— Hauteskundeak.

**c) Ikasleen ordezkaritza**

— Gelako/taldeko ordezkaria.
— Ikasleen Kontseilua.

### d) Gizarte alorra

— Boluntariotzako jarduerak: boluntariotzarekin lotutako jardueretan parte hartzen dutela adierazi duten ikasleen kopurua txikia da beste jarduera batzuetan parte hartzen dutenekin alderatuta, eta, gainera, esan beharra dago halakoak aipatu dituztenean ia inork ez dituela lehenengo edo bigarren jarduera gisa aipatu.




2. irudia. Ikasleek zer jarduera motatan parte hartzen duten

Ikasleek beren kabuz aipatu dituzten jarduerak eta ekintzak aztertu ostean, aldez aurretik emandako erantzunen artetik zein aukeratu dituzten ikusiko dugu. Aukerak bost taldetan sailkatuta zeuden, eta ekintza bat baino gehiago aukera zezaketen talde bakoitzean. Hortaz, erantzun bat baino gehiagoko galdera bat denez, guztira ez du 100 ematen.

| | Kopurua | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Mugikortasun-programak | 261 | 22,4 |
| Parekoen arteko tutoretza | 94 | 8,1 |
| Irakasleak ebaluatzeko galdetegiak | 891 | 76,4 |
| Solasaldiak eta hitzaldiak | 913 | 78,3 |
| Ikastaroak, mintegiak eta jardunaldiak | 820 | 70,3 |
| **Erantzunak guztira** | **2.979** | **255,5** |

3. taula. Irakaskuntzarekin lotutako jardueretan partaidetza

**Irakaskuntzarekin** lotutako jarduerak dira ikasleek gehien markatu dituztenak: 1.166k talde honetako jarduera bat edo gehiago adierazi dituzte. Galderari erantzun diotenen % 78,3k solasaldi eta hitzaldietan parte hartu du; % 76,4k ikasleak ebaluatzeko inkestak betetzen ditu, eta hamarretik zazpi noiz edo noiz joan dira ikastaro, mintegi edo jardunaldiren batera (% 70,3). Neurri txikiagoan parte hartzen dute edo parte hartu dute mugikortasun-programaren batean (% 22,4), eta % 8,1ek bakarrik parte hartu du parekoen arteko tutoretzako programetan.

| | **Kopurua** | **Ehunekoa** |
|---|---|---|
| Lankidetza-bekak | 103 | 26,7 |
| Epamahai desberdinetan ikasleen ordezkaria | 28 | 7,3 |
| Hezkuntza Berrikuntzarako Programak | 15 | 3,9 |
| Ikerketa-proiektuak | 169 | 43,8 |
| Ikerketa-galdetegiak | 192 | 49,7 |
| **Erantzunak guztira** | **507** | **131,3** |

4. taula. Ikerkuntzarekin lotutako jardueretan partaidetza

386 ikaslek erantzun diete **ikerkuntzarekin** lotutako jarduerei. Horien erdiak ikerketa-galdeketaren batean parte hartu duela adierazi du, eta % 43,8k ikerketa-proiektu batean parte hartzen du (edo parte hartu du). Ikasleen laurdenak lankidetza-bekaren batean parte hartu du (% 26,7). % 7,3k zenbait epaimahaitan ikasleen ordezkari izan dela adierazi du, eta % 3,9k Hezkuntza Berrikuntzarako Programaren batean parte hartzen du.

| | **Kopurua** | **Ehunekoa** |
|---|---|---|
| Gobernu Konts., Ordezko Batzordeak (AADB, GIAB, euskera…) | 21 | 10,0 |
| Unibertsitate Klaustroa | 24 | 11,4 |
| Ikasle Kontseilua (Zentrala, Campusekoa, Ikastegikoa) | 102 | 48,6 |
| Ikastegiko Batzarreko, Ikastegiko Ordezko Batzordeetako... ord. | 35 | 16,7 |
| Saileko Kontseilua | 23 | 11,0 |
| Taldeko/Gelako ordezkaria | 130 | 61,9 |
| Konpentsazio Epaimahaia | 9 | 4,3 |
| **Erantzunak guztira** | **344** | **163,8** |

5. taula. Kudeaketarekin lotutako jardueretan partaidetza

210 ikaslek **kudeaketa** arlo batean edo gehiagotan ikasleen ordezkari izan direla adierazi dute. Gehienak gelako edo taldeko ordezkari dira (edo izan dira) (% 61,9), edo Ikasleen Kontseiluko kide (% 48,6). % 16,7 ordezkaria da (edo izan da) Ikastegiko Batzarrean edo ikastegiko batzordeetan; % 11,4 Unibertsitateko Klaustroko kide izan da; % 11, Saileko Kontseilu bateko kide; % 10ek Gobernu Kontseiluan edo ordezko batzordeetan parte hartu du, eta % 4,3 Konpentsazio Epaimahaiko kide izan da.

| | Kopurua | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Kultura-jarduerak | 503 | 48,6 |
| Kirol-jarduerak | 601 | 58,1 |
| Atea irekien jardunaldiak | 339 | 32,8 |
| Ikasleen unibertsitate-elkarteak | 70 | 6,8 |
| Eztabaida-ligak | 27 | 2,6 |
| Lehiaketak (kartelak, marrazkia, argazkia, etab.) | 207 | 20,0 |
| Hauteskundeak | 415 | 40,1 |
| Ekimenak antolatzea | 148 | 14,3 |
| **Erantzunak guztira** | **2.310** | **223,4** |

6. taula. Unibertsitateko bizitzarekin lotutako jardueretan partaidetza

**Unibertsitateko bizitzarekin** lotutako jarduerak dira, irakaskuntzaren arlokoekin batera, UPV/EHUko ikasleen partaidetzaren oinarria. 1.034 ikaslek adierazi dute talde horretako jarduera batean edo gehiagotan parte hartu izana. % 58,1ek kirol-jardueretan parte hartzen duela dio; % 48,6k, kultura-jardueretan; hamarretik lauk hauteskunderen batean parte hartu izana adierazi dute (% 40,1), eta herenak, Ate Irekien Jardunaldietan parte hartzen duela (% 32,8). Hamar ikasletik bik lehiaketaren batean ere parte hartu dutela adierazi dute (% 20), eta % 14,3k, unibertsitateko zenbait ekimenen antolakuntzan.

**Gizarte alorreko** jarduerak dira, ordezkaritzakoekin batera, ikasleek gutxien parte hartu dutenak. Parte-hartzaileen artean, % 80,8k boluntariotzako ekintzak gauzatzen ditu, eta % 41,1ek, GKEen bidezko ekintzak. % 2,7k bakarrik parte hartzen du adinekoekin bizitzeko programetan.

| | Kopurua | Ehunekoa |
|---|---|---|
| GKEen Jarduerak, etab. | 90 | 41,1 |
| Boluntariotza-jarduerak | 177 | 80,8 |
| Adineko pertsonekin ostatu hartzea | 6 | 2,7 |
| **Erantzunak guztira** | **273** | **124,7** |

7. taula. Gizarte alorrarekin lotutako jardueretan partaidetza

Hortaz, proposatutako erantzunen kasuan, ondoriozta dezakegu unibertsitateko ikasleek irakaskuntzarekin eta unibertsitateko bizitzarekin lotutako jardueretan parte hartzen dutela nagusiki. Zehazki, hitzaldiak zein mintegiak eta kirol- nahiz kultura-jarduerak dira ikasle kopuru handienak dituzten jarduerak, alde batera utzi gabe Gobernu Kontseiluko ordezkari edo kide gisa parte hartzen duten ikasleak. Ikasleek berez erantzun behar zutenean emandako erantzunekin alderatuta, hau da, aukerarik eduki gabe erantzun behar zutenean emandako erantzunekin, egiaztatu egin dugu ikasleen lehentasunak eta partaidetza arloak bertsuak direla.

## 7.2.2. Ikasleek UPV/EHUn parte hartzea mugatzen duten faktoreak

UPV/EHUko ikasleek zer ekintza motatan parte hartzen duten aztertu ostean, partaidetza mugatzen duten faktoreak ezagutzen saiatuko gara. Galdera hori inkestari erantzun dioten ikasle guztiei egin diegu, unibertsitateko jardueraren batean parte hartu ala ez. Aurreko atalean bezalaxe, unibertsitateko jardueretan parte hartzea eragozten duten arrazoiak edo faktoreak beren kabuz aipatzeko eskatu diegu lehenengo. Ikasleei arrazoi batzuk aipatzeko eta garrantziaren arabera ordenatzeko eskatu diegu.

Ikasleek lau arrazoi nagusi aipatu dituzte UPV/EHUko jardueretan ez parte hartzeko:

a) *Antolatutako jardueren interesik eta erakargarritasunik eza*: ikasleen ustez, eskaintzen diren jarduerak ez dira ez erakargarriak ez interesgarriak, eta, oro har, ez dute inolako ekarpenik egiten. Haien ustez, jarduerak ez datoz bat ikasleen interesekin.
b) *Informaziorik eza:* ikasleen esanetan, partaidetza mugatzen duen arrazoietako bat informaziorik eza da. Ikasle askok adierazi dute askotan ez dutela antolatutako jardueren berri izaten edo informazioa jasotzen dutenerako jarduera amaituta dagoela. Haien ustez, jarduerak ezagutzera emateko bidea ez da egokia ikasle guztiengana iristeko. Hortaz, unibertsitateko jardueren promozioa eta dibulgazioa urria dela eta hobe daitekeela diote. Alde horretatik, unibertsitatearen webguneak eskainitako jarduera eta ekintza guztiak bilduko dituen diseinu eta gune bat izan behar dituela uste dute.
c) *Denbora gutxi:* ikasleek aipatutako beste argudio bat denborarik eza da, eta askok gradu berrien eta EUEren ezarpenarekin lotu dute hori. Haien iritziz, eskola-ordu gehiegi dituzte unibertsitateko beste jarduera batzuetan parte hartu ahal izateko. Denbora-gabeziarekin batera, ordutegien bateraezintasuna ere aipatu dute, jarduera asko eskola-ordutan izaten baitira.
d) *Motibaziorik eza:* dirudienez, hori da ikasleen partaidetza mugatzen duen beste faktore bat. «Alferkeria», «utzikeria», «pasibotasuna» eta, oro har, motibaziorik eza aipatu dituzte. Ikasleek berezkotzat duten motibazio-gabeziari erantsi behar genioke ikasleak ez dituztela aintzat hartzen unibertsitateko jarduerak programatzean eta antolatzean.

Horiek dira ikasleek gehien errepikatu dituzte arrazoiak, baina badira beste batzuk ere:

e) *Aitorpenik eza:* ikasle batzuen ustez, unibertsitateko jarduerak aitortu egin behar lituzke erakundeak, eta, zehazki, partaidetzaren truke kredituriк ez ematea aipatzen

dute hura mugatzen duen faktore gisa. Haietako batek dioen moduan, «krediturik ematen ez duena ez da existitzen».

f) *Unibertsitateko kontzientziarik eza:* ikasle batzuek uste dute ikasleek ez dutela beren burua UPV/EHUko kidetzat ikusten, ez dagoela taldeko loturarik, ezta unibertsitateko kontzientziarik ere. Halaber, unibertsitatean partaidetzarako kultura oso urria dela aipatu dute, eta ikasleak ikasketak amaitzera eta gainditzera bakarrik joaten direla unibertsitatera.
g) *Prezio altuak:* ikasle batzuen ustez, zenbait ekintza eta jarduera oso garestiak dira, eta hori izan daiteke unibertsitateko ikasleen partaidetza mugatzen duen beste arrazoi bat.
h) *Urruntasuna:* ikasleek aipatutako beste arrazoi bat hiru campusak ikasleen jatorrietatik urrun daudela da. Oro har, ikastegiarena ez den beste hiri edo udalerri batean bizi diren ikasleei egiten diete erreferentzia, eta horrek haien partaidetza zailtzen duela adierazten dute.
i) *Irakasleen motibazio urria:* beste arrazoi bat irakasleen eskutik jardueren gaineko informazio eta motibazio gutxi jasotzen dutela da.
j) *Giro politizatuegia:* zenbait ikasleren iritziz, jarduera jakin batzuen giro politizatuegiak mugatzen du partaidetza.
k) *Euskara:* euskara ez parte hartzeko arrazoi gisa aipatu dute, baina kontrako arrazoi gisa. Batzuek esaten dute jarduera gehienak euskaraz egiten direla eta horregatik ez dutela parte hartzen; beste batzuek, ordea, euskarak oso tarte txikia duela unibertsitateko jardueretan eta horregatik ez dutela parte hartzen.

Ikasleek beren kabuz aipatutako arrazoiak aztertu ostean, guk emandakoen artetik aukeratutakoak aztertuko ditugu. Arrazoi batzuk eman genizkien, 1etik 5era ordenatzeko, 1 garrantzi txikienekoa izaki, eta 5, berriz, garrantzitsuena (1. arrazoia). Gainera, proposatutako arrazoi bakoitzaren batez besteko puntuazioa kalkulatu dugu, haietako bakoitzak zer-nolako garrantzia duen ezagutzeko; ikasleek zer garrantzi maila eman dioten hartu dugu kontuan.

| | **1go arrazoia** | | **2. arrazoia** | | **3. arrazoia** | | **4. arrazoia** | | **5. arrazoia** | | **Aipamenak, guztira** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **Batez besteko puntuazioa** |
| Informazio gutxi | 735 | 27,1 | 544 | 20,1 | 622 | 22,9 | 693 | 25,5 | 501 | 18,4 | 3.095 | 3,1 |
| UPV/EHUko kide ez sentitzea | 647 | 23,8 | 414 | 15,3 | 786 | 28,9 | 766 | 28,1 | 644 | 23,7 | 3.257 | 2,9 |
| Motibazio kaskarra | 599 | 22,0 | 578 | 21,4 | 406 | 14,9 | 429 | 15,8 | 335 | 12,3 | 2.347 | 3,3 |
| Loturarik ez ikasleen interesekin | 411 | 15,1 | 414 | 15,3 | 648 | 23,8 | 596 | 21,9 | 917 | 33,7 | 2.986 | 2,6 |
| Ikasleen betebeharrak | 325 | 12,0 | 755 | 27,9 | 257 | 9,5 | 238 | 8,7 | 324 | 11,9 | 1.899 | 3,3 |
| **Guztira** | **2.717** | **100,0** | **2.705** | **100,0** | **2.719** | **100,0** | **2.722** | **100,0** | **2.721** | **100,0** | | |

8. taula. Ikasleen partaidetza mugatzen duten faktoreak

Hortaz, ikasleek partaidetza mugatzen duen arrazoi nagusi gisa zein hautatu duten aztertuko dugu. Inkestari erantzun dioten ikasleen % 27,1en ustez, ikasleen partaidetza mugatzen duen arrazoi nagusia informazio-urritasuna da; % 23,8ren ustez, arrazoi nagusia ikasleek beren burua UPV/EHUko kidetzat ez hartzea da, eta % 22ren ustez, ikasleen motibazio txikia da arrazoi nagusia. % 15,1en iritziz, jarduerak eta ikasleen behar edo interesak bat ez etortzeak mugatzen du partaidetza; % 12,1ek dio ikasleen betebeharrak direla arrazoi nagusia.




7. grafikoa. Ikasleen partaidetza mugatzen duten faktoreak (%)




8. grafikoa. Ikasleen partaidetza mugatzen duten faktoreen batez besteko puntuazioa

Ikasleek ez parte hartzea dakarten arrazoi gisa proposatutako aukera bakoitzak lortutako batez besteko puntuaziori dagokionez, aipatu beharra dago aukera guztiek ez dutela aipamen kopuru bera jaso. Batez bestekoa 1 eta 5 bitartekoa izan daitekeela aintzat hartuta, eta gehienezko puntuazioa 5 izanik, ia arrazoi guztiek antzeko balorazioa jaso dute. Motibazio urria (3,3) eta ikasleen betebeharrak (3,3) dira, itxuraz, ikasleen partaidetza gehien muga dezaketen arrazoiak; gero, informazio-eskasia (3,1) eta ikasleek beren burua UPV/EHUko kidetzat ez hartzea (2,9) daude. Jardueren eta ikasleen interesen arteko loturarik eza da batez besteko txikieneko arrazoia, 2,6 punturekin.

Beren kabuz emandako erantzunak aztertuz gero, guk aipatutako arrazoiak erantzun haietan ere aipatu dituztela ikus dezakegu, nahiz eta lehentasunen hurrenkera aldatu den. Hala bada, beren burua UPV/EHUko kidetzat ez hartzeak garrantzi handiagoa dauka guk proposatutako erantzunetan, eta jardueren eta ikasleen interesen arteko loturarik ezak, berriz, txikiagoa.

## 7.2.3. Ikasleek UPV/EHUn parte hartzea errazten duten faktoreak

Atal honetan, ikasleek UPV/EHUn parte hartzea errazten duten faktoreak ezagutuko ditugu. Ikasleek partaidetza sustatuko luketen arrazoi ugari aipatu dituzte beren kabuz. Aipatuenen artean daude honako hauek:

a) *Irakaskuntzako kredituak lortzea:* zalantzarik gabe, kredituak lortzea da ikasleek partaidetza errazteko faktore nagusi gisa ematen duten argudio aipatuena.
b) *Denbora librea:* itxura denez, denbora librea edo ordutegi bateragarriak edukitzeak ere asko erraztuko luke ikasleek unibertsitatean parte hartzea. Nolanahi ere, ikasle batzuek nolabaiteko gutxiespenez proposatzen dute gai hori, parte hartzen dutenek denbora libre «gehiegi» dutela, «ez dutela beste zereginik» edo «erantzukizunik ez dutela» adierazten baitute.
c) *Ikasleen motibazioa eta parte hartzeko bokazioa:* alderdi garrantzitsutzat daukate, halaber, ikasleen motibazioa, eta, haien ustez, zenbait ikaslek motibazio pertsonalak eta entzutea nahiz boterea eskuratzeko motibazioa dituzte, eta horregatik parte hartzen dute hainbat jardueratan. Jakin-nahia duten ikasleak, unibertsitatean ez ezik, unibertsitatetik kanpo ere beste jarduera batzuetan parte hartzen dutenak. Haien ustez, pertsona aktiboak, dinamikoak eta antolatuak dira; hortaz, ezaugarri pertsonalek ere badute eraginik unibertsitate barruko partaidetza mailan.
d) *Informazioa edukitzea:* partaidetza bultzatzen duen beste faktore bat jarduerei buruzko informazioa edukitzea edo lortzen saiatzea da.

Horiez gain, hauek ere adierazi dituzte parte hartzeko arrazoi gisa:

e) *Beren burua UPV/EHUko kidetzat hartzea:* unibertsitatearekiko lotura sentitzea, bertako kide sentitzea, jarduera batzuetan parte hartzea erraztuko duen beste arrazoietako bat da.
f) *Ikastegitik hurbil bizitzea:* ikasleak ikastegietatik hurbil bizitzeak ere erraztu egiten du partaidetza.
g) *Sozializazioa:* ikasleek sozializazioa ere aipatu dute, batzuek jendea ezagutzeko erabiltzen dituztelako unibertsitateko jarduerak, batik bat, EAEtik kanpo bizi diren ikasleek.
h) *EUren interes edota prestakuntza akademikoarekin lotutako jarduerak* edukitzea: euren interesekin eta prestakuntzarekin lotutako jarduerak edukitzeak partaidetza erraztu eta sustatzen duela uste dute.

Ikus dezakegunez, unibertsitateko ikasleek parte hartzea errazten duten faktore asko partaidetzaren mugatzaile gisa aipatutakoen aurkakoak dira. Orain, ikus dezagun zer erantzun duten ikasleek parte hartzeko interesa piztu lezaketen bost arrazoi proposatu dizkiegunean.

| | 1. arrazoia | | 2. arrazoia | | 3. arrazoia | | 4. arrazoia | | 5. arrazoia | | Aipamenak, guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **Batez besteko puntuazioa** |
| Aitorpena | 1.386 | 53,1 | 370 | 14,3 | 365 | 14,1 | 246 | 9,5 | 543 | 20,9 | 2.910 | 3,6 |
| UPV/EHUko partaide sentitzea | 475 | 18,2 | 426 | 16,5 | 717 | 27,7 | 632 | 24,3 | 712 | 27,4 | 2.962 | 2,8 |
| Informazioa hobetzea | 323 | 12,4 | 741 | 28,6 | 232 | 8,9 | 292 | 11,2 | 289 | 11,1 | 1.877 | 3,3 |
| Irakasleen parte-hartzea | 235 | 9,0 | 541 | 20,9 | 759 | 29,3 | 779 | 30,0 | 614 | 23,6 | 2.928 | 2,7 |
| Ikasle Kontseiluaren parte-hartzea | 189 | 7,2 | 511 | 19,7 | 520 | 20,1 | 647 | 24,9 | 444 | 17,1 | 2.311 | 2,7 |
| **Guztira** | **2.608** | **100,0** | **2.589** | **100,0** | **2.593** | **100,0** | **2.596** | **100,0** | **2.602** | **100,0** | | |

9. taula. Ikasleek UPV/EHUn parte hartzea errazten duten faktoreak

Inkestari erantzun dioten ikasleen erdiak baino gehiagok (% 53,1) uste du partaidetzaren aitorpena (kredituak, egiaztagiriak, espedientea, etab.) dela unibertsitateko jardueretan parte hartzeko arrazoi nagusia; gero, beren burua UPV/EHUko kidetzat hartzea (% 18,2) eta informazioa hobetzea (% 12,4) datoz. % 9k uste du irakasleen konpromisoak erraztu egingo lukeela partaidetza, eta % 7,2ren ustez, oso garrantzitsua da ikasle-kontseiluen eta ordezkarien inplikazioa.




9. grafikoa. Ikasleek UPV/EHUn parte hartzea errazten duten faktoreak (%)

Aurretik aipatu dugun moduan, proposatutako alderdi guztien garrantzia aztertzeko asmoz, haietako bakoitzaren batez besteko puntuazioa kalkulatu dugu, ikasleek zer garrantzia eman dieten kontuan hartuta (*10. grafikoa*). Ikasleek egindako jardueren aitorpenak jaso du puntuazio handiena, 3,6 puntu, 1etik 5erako eskalan (1 garrantzi txikieneko arrazoia izanik, eta 5, berriz, garrantzitsuena). Puntuazio handiena jaso duen bigarren arrazoia informazioa hobetzea izan da (3,3). Ikasleek beren burua UPV/EHUko kidetzat hartzeak 2,8 puntu lortu ditu, batez beste; atzetik dauzka irakasleen konpromisoa eta Ikasleen Kontseiluaren inplikazioa (biak 2,7 punturekin). Hortaz, oro har, bi erantzun motak (berezkoak eta proposatuak) argiro erakusten digute zer alderdi indartu behar diren ikasleek UPV/EHUn gehiago parte har dezaten.




10. grafikoa. Ikasleek parte hartzea errazten duten faktoreen batez besteko puntuazioa

## 7.2.4. Zure ustez, zer jardueratan parte hartu behar dute ikasleek?

UPV/EHUko ikasleek zer jarduera motatan parte hartzen duten ikusi, eta partaidetza hori zer faktorek faboratzen edo mugatzen duten zehaztu ostean, zer jardueratan parte hartzea komeni den galdetu diegu ikasleei.

Euren kabuz erantzunda, jarduera hauek izan dira aipatuenak:

a) *Prestakuntzako jarduerak eta ikastaroak:* jasotzen ari diren prestakuntza osatzeko jarduera guztiak.
b) *Lan arlora bideratutako jarduerak:* haien ikasketekin lotuak eta enpresekin harremanak barne hartzen dituztenak.
c) *Ikasleen ordezkaritzarekin zerikusia dutenak:* bai Ikasleen Kontseiluan bai Eskola Kontseiluan ordezkari gisa, eta beste edozein eremutan, erabaki-organotan edo ikasleen interesak defendatzeko organotan.
d) *Hitzaldiak, tailerrak, jardunaldiak, biltzarrak eta mintegiak.*
e) *Ikerketako eta garapeneko taldeak*.

Beste jarduera mota batzuk ere aipatu dituzte, neurri txikiagoan:

f) Lankidetza-bekak.
g) Mugikortasun-programak: batik bat Erasmus.
h) Kultura-jarduerak.
i) Kirol-jarduerak.
j) Boluntariotzarekin lotutako jarduerak.

Gero, zenbait arlotan taldekatutako jarduerak proposatu dizkiegu, talde bakoitzetik 3 jarduera aukeratzeko eta talde barruan duten garrantziaren arabera ordenatzeko, 1 garrantzi txikienekoa izanik, eta 3, garrantzitsuena.

Irakaskuntzarekin lotuta proposatu dizkiegun jardueren artean, % 28,4k ikastaroak, mintegiak eta jardunaldiak hautatu dituzte lehen aukera gisa (1. jarduera); % 22,7k, mugikortasun-programak, eta % 17,2k, hitzaldiak. % 13,5en ustez, irakaskuntzarekin lotutako jarduera garrantzitsuena, ikasleen partaidetzaren garrantziari dagokionez, ebaluaziorako inkestak dira.

| | 1. jarduera | | 2. jarduera | | 3. jarduera | | Aipamenak, guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | kop. | % | kop. | % | kop. | % | kop. | Batez besteko puntuazioa |
| Ikastaroak, mintegiak eta jardunaldiak | 689 | 28,4 | 638 | 26,4 | 529 | 21,9 | 1.856 | 2,1 |
| Mugikortasun-programak | 550 | 22,7 | 294 | 12,2 | 513 | 21,2 | 1.357 | 2,0 |
| Solasaldiak eta hitzaldiak | 417 | 17,2 | 653 | 27,0 | 381 | 15,8 | 1.451 | 2,0 |
| Irakasleak ebaluatzeko galdetegiak | 328 | 13,5 | 298 | 12,3 | 414 | 17,1 | 1.040 | 1,9 |
| Parekoen arteko tutoretza | 236 | 9,7 | 242 | 10,0 | 286 | 11,8 | 764 | 1,9 |
| Harrera-programak (ikasle berriekin) | 208 | 8,6 | 292 | 12,1 | 292 | 12,1 | 792 | 1,9 |
| **Guztira** | **2.428** | **100,0** | **2.417** | **100,0** | **1.415** | **100,0** | | |

10. taula. Irakaskuntzarekin lotutako jardueren garrantzia




11. grafikoa. Irakaskuntzarekin lotutako jardueren garrantzia

Proposatutako erantzun bakoitzaren garrantzia aztertzeko, haietako bakoitzaren batez besteko puntuazioa kalkulatu dugu, ikasleek emandako hurrenkera kontuan hartuta. Kasu honetan, jardueren batez besteko puntuazioa 1 (garrantzi txikienekoa) eta 3 (garrantzitsuena) bitartekoa izango da. *12. grafikoan* ikus dezakegunez, ez dago alde handirik aztertzen ari garen jardueren batez besteko puntuazioetan. Azpimarratu beharra dago jarduera guztiek ez dutela aipamen kopuru bera jaso eta batez besteko puntuazioa proposatutako jarduera bakoitzak jasotako aipamen kopuruaren arabera kalkulatu dugula. 1etik 3rako eskalan, proposatutako irakaskuntza-jardueren batez besteko puntuazioa 2 ingurukoa da.




12. grafikoa. Irakaskuntzarekin lotutako jardueren batez besteko puntuazioa

Ikerketaren arloan proposatutako jarduerei dagokienez, % 30,9k lankidetza-bekak hautatu ditu lehen aukera gisa; % 28,9k, ikerketa-proiektuak, eta % 22,2k Hezkuntza Berrikuntzarako Programak.

| | 1. jarduera | | 2. jarduera | | 3. jarduera | | Aipamenak, guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **Batez besteko puntuazioa** |
| Lankidetza-bekak | 733 | 30,9 | 541 | 22,8 | 706 | 29,9 | 1.980 | 2,0 |
| Ikerketa-proiektuak | 687 | 28,9 | 897 | 37,8 | 535 | 22,7 | 2.119 | 2,1 |
| Hezkuntza Berrikuntzarako Programak | 527 | 22,2 | 579 | 24,4 | 557 | 23,6 | 1.663 | 2,0 |
| Ikerketa-galdetegiak | 232 | 9,8 | 194 | 8,2 | 282 | 11,9 | 708 | 1,9 |
| Ikasleen ordezk. zenbait epaimahaitan | 197 | 8,3 | 165 | 6,9 | 281 | 11,9 | 643 | 1,9 |
| **Guztira** | **2.376** | **100,0** | **2.376** | **100,0** | **2.361** | **100,0** | | |

11. taula. Ikerkuntzarekin lotutako jardueren garrantzia




13. grafikoa. Ikerkuntzarekin lotutako jardueren garrantzia

Galdera honetan ere nabarmen desberdina da jarduera bakoitzak izandako aipamen kopurua. Ezin dugu ahaztu batez besteko puntuazioak kalkulatzeko aukera bakoitzaren aipamenak hartzen ditugula erreferentziatzat, eta horrek, erantzunetan polarizaziorik ez izatearekin batera, lortutako puntuazioak antzekoak izatea dakar. Hala bada, aintzat hartuta 1 garrantzi txikieneko jarduera dela eta 3 garrantzitsuena, ikerketa-proiektuen batez bestekoa 2,1 da; lankidetza-bekena eta Hezkuntza Berrikuntzarako Programena, 2, eta ikerketako galdeketena nahiz epaimahaietako ikasleen ordezkaritzarena, 1,9.




14. grafikoa. Ikerkuntzarekin lotutako jardueren batez besteko puntuazioa

Hirugarren taldean, kudeaketarekin eta ikasleen ordezkaritzarekin lotutako jarduerak proposatu dizkiegu ikasleei. Ikasleen ordezkaritzako jardueren artean, Ikasleen Kontseilua izan da lehen aukera gisa aipatuena (% 26,3); bigarren tokian Gobernu Kontseilua dago (% 17,4), eta hirugarrenean, gelako edo taldeko ordezkariak (% 16,1). Ikasleen % 15,8ren ustez, ikasleen ordezkaritzarekin lotutako jarduera garrantzitsuena Unibertsitateko Klaustroa da.

| | **1. jarduera** | | **2. jarduera** | | **3. jarduera** | | **Aipamenak, guztira** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **Batez besteko puntuazioa** |
| Ikasle Kontseilua | 610 | 26,3 | 673 | 29,1 | 546 | 23,7 | 1.829 | 2,0 |
| Gobernu Kontseilua, ordezko Batzordeak | 403 | 17,4 | 248 | 10,7 | 378 | 16,4 | 1.029 | 2,0 |
| Taldeko/gelako ordezkaria | 373 | 16,1 | 282 | 12,2 | 407 | 17,7 | 1.062 | 2,0 |
| Unibertsitate Klaustroa | 366 | 15,8 | 446 | 19,3 | 416 | 18,1 | 1.228 | 2,0 |
| Ikastegiko edo Ikastegiko Batzordetako ordezkaria | 230 | 9,9 | 315 | 13,6 | 241 | 10,5 | 786 | 2,0 |
| Konpentsazio Epaimahaia | 171 | 7,4 | 141 | 6,1 | 159 | 6,9 | 471 | 2,0 |
| Saileko Kontseilua | 163 | 7,0 | 204 | 8,8 | 153 | 6,7 | 520 | 2,0 |
| **Guztira** | **2.316** | **100,0** | **2.309** | **100,0** | **2.300** | **100,0** | | |

12. taula. Kudeaketarekin lotutako jardueren garrantzia




15. grafikoa. Kudeaketarekin lotutako jardueren garrantzia

Ikasleei ordezkaritzako jardueren harira proposatu dizkiegun erantzunak aztertuz gero, guztiek batez besteko puntuazio bera dutela ikusiko dugu: 2 (*12. taula*). Hortaz, ez da jarduerarik nagusitzen. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da gogora ekartzea erantzun bakoitzaren aipamen kopuruan dauden aldeak. Kasu honetan, Ikasleen Kontseiluko ordezkaritza 1.829 aldiz aipatu dute, eta Konpentsazio Epaimahaiko ordezkaritza, berriz, 471 aldiz.




16. grafikoa. Kudeaketarekin edota ordezkaritzarekin lotutako jardueren batez besteko puntuazioa

Orain, unibertsitateko bizitzako jardueretatik ikasleei garrantzitsuenak zein iruditzen zaizkien aztertuko dugu. Ikasleek beren kabuz emandako erantzunak eta lehentasunak berrikusita, ikus dezakegu oro har ez zirela arlo honetako jarduerak garrantzitsuenak ikasleentzat. Hala eta guztiz ere, aipatu zituzten talde honetan sar ditzakegun jarduerak, eta horiek bat datoz, hain justu, proposatutako erantzunetan aipamen gehien jaso dituztenekin. Hortaz, unibertsitateko bizitzaren baitako jarduera garrantzitsuenaren lehen aukera gisa, % 23,9k kultura-jarduerak hautatu ditu; % 18,4ren ustez, garrantzitsua da ekitaldien antolakuntzan parte hartzea, eta 15,2k kirol-jarduerak aipatu ditu. % 10,2k uste du unibertsitateko jarduera garrantzitsuena UPV/EHUko hauteskunde-prozesuetan parte hartzea dela.

| | 1. jarduera | | 2. jarduera | | 3. jarduera | | Aipamenak, guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | kop. | % | kop. | % | kop. | % | kop. | Batez besteko puntuazioa |
| Kultura-jarduerak | 572 | 23,9 | 476 | 20,0 | 538 | 22,6 | 1.586 | 2,0 |
| Ekimenak antolatzea | 440 | 18,4 | 383 | 16,1 | 374 | 15,7 | 1.197 | 2,1 |
| Kirol-jarduerak | 362 | 15,2 | 453 | 19,1 | 394 | 16,6 | 1.209 | 2,0 |
| Hauteskundeak | 243 | 10,2 | 174 | 7,3 | 222 | 9,3 | 639 | 2,0 |
| Ikasleen unibertsitate-elkarteak | 228 | 9,5 | 288 | 12,1 | 250 | 10,5 | 766 | 2,0 |
| Lehiaketak (kartelak, marrazkia, argazkia, etab.) | 216 | 9,0 | 262 | 11,0 | 228 | 9,6 | 706 | 2,0 |
| Eztabaida-ligak | 175 | 7,3 | 153 | 6,4 | 154 | 6,5 | 482 | 2,0 |
| Ate irekien jardunaldiak | 153 | 6,4 | 186 | 7,8 | 218 | 9,2 | 557 | 1,9 |
| **Guztira** | **2.389** | **100,0** | **2.375** | **100,0** | **2.378** | **100,0** | | |

13. taula. Unibertsitateko bizitzarekin lotutako jardueren garrantzia




17. grafikoa. Unibertsitateko bizitzarekin lotutako jardueren garrantzia

Unibertsitateko bizitzako jardueren batez besteko puntuazioak 1,9 eta 2,1 bitartekoak dira; 1,9 jaso dute Ate Irekien Jardunaldiek, eta 2,1, ekitaldien antolakuntzak. Batez besteko horien arabera, ikasleek garrantzi bertsua ematen diote proposatutako jarduera guztiei. Nolanahi ere, *13. taulan* ikus dezakegunez, erantzun bakoitzak jasotako kopuruan bada alde nabarmenik.




18. grafikoa. Unibertsitateko bizitzarekin lotutako jardueren batez besteko puntuazioa

Azkenik, gizarte alorreko jardueren artean ikasleentzat garrantzitsuenak zein diren ikusiko dugu. Unibertsitateko bizitzako jarduerei buruzko atalean aipatu dugun moduan, gizarte alorreko jarduerak ez dira aipamen gehien jaso dituztenak.

| | 1. jarduera | | 2. jarduera | | 3. jarduera | | Aipamenak, guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | kop. | % | kop. | % | kop. | % | kop. | Batez besteko puntuazioa |
| Boluntariotza-jarduerak | 848 | 36,4 | 864 | 37,2 | 655 | 28,2 | 2.367 | 2,1 |
| Adineko pertsonekin ostatu hartzea | 796 | 34,1 | 529 | 22,8 | 961 | 41,3 | 2.286 | 1,9 |
| GKEen Jarduerak, etab. | 687 | 29,5 | 929 | 40,0 | 710 | 30,5 | 2.326 | 2,0 |
| **Guztira** | **2.331** | **100,0** | **2.322** | **100,0** | **2.326** | **100,0** | **6.979** | |

14. taula. Gizarte alorrarekin lotutako jardueren garrantzia

Arlo honetan, boluntariotzarekin lotutako jarduerak dira garrantzitsuenak ikasleentzat (% 36,4). % 34,1ek adineko pertsonekin bizitzeko programari eman dio lehentasuna, eta % 29,5ek, GKEekin lotutako jarduerei.




19. grafikoa. Gizarte alorrarekin lotutako jardueren garrantzia

Boluntariotzarekin lotutako jarduerak 2,1 puntu jaso dute batez beste; GKEekin lotutakoek, 2 puntu, eta Adineko pertsonekin bizitzeko programek, 1,9 puntu.




20. grafikoa. Gizarte alorrarekin lotutako jardueren batez besteko puntuazioa

### 7.2.5. Ikasleen partaidetza areagotzeko iradokizunak

Orain arte, ikasleek zer ekintza motatan parte hartzen duten eta partaidetza zer faktorek faboratzen eta mugatzen duten ezagutu dugu, baita ikasleen ustez zer jarduera diren garrantzitsuenak ere. Azken atal honetan, ikasleek unibertsitatean gehiago parte hartzeko zer proposamen iradoki dituzten jakin nahi izan dugu.

Hauek dira ikasleek gehien aipatu dituzten iradokizunak:

a) *Informazio gehiago ematea:* egungo informazio- eta hedapen-bideak hobetzea eta ikasleei informazioa hurbiltzea gizarte-sareen bidez. Unibertsitateko webgunea alderdi horretan aldatzea ere proposatu dute.
b) *Ikasleentzat interesgarriak diren jarduerak proposatzea:* haien ustez, jarduerek erakargarriagoak izan behar dute, eta ikasleen jakin-minetara egokitu behar dute.
c) *Partaidetza aitortzea:* unibertsitateko jardueretako partaidetza aitortu egin behar litzatekeela uste dute, irakaskuntzako kredituak emanez, batik bat.
d) *Motibazioa:* ikasleek ez parte hartzeko arrazoietako bat motibaziorik eza dela esan dute, eta unibertsitateak haiek motibatu behar lituzkeela uste dute. Haien iritziz, garrantzitsua da irakasleek suspertzea ikasleak unibertsitateko jardueretan parte har dezaten.
e) *Ikasleen interesak kontuan hartzea:* ikasleentzako jarduerak eta ekintzak programatzeko eta antolatzeko ikasleen partaidetza beharrezkoa dela uste dute. Ildo horretan, garrantzitsua iruditzen zaie, halaber, ikasleek jardueren eraketan parte hartzea antolakuntza eta egitura horizontalago baten bidez.

Orain arte aipatutakoez gain, proposamen hauek ere egin dituzte:

f) Eskainitako jarduerak merkatzea.
g) UPV/EHUko kide izatearen sentimendua indartzea.
h) Jardueren ordutegiak eskola-orduetara egokitzea.

Gero, zenbait arlotan taldekatutako iradokizun batzuk proposatu dizkiegu, honako hau jakiteko: ikasleen ustez haietako zeinek fabora dezaketen gehien partaidetza. Aurreko ataletan bezalaxe, ikasleek hiru iradokizun hautatu behar izan dituzte talde bakoitzean, eta garrantziaren arabera ordenatu, 1 garrantzi txikienekoa izanik, eta 3, garrantzitsuena.

| | **1. iradokizuna** | | **2. iradokizuna** | | **3. iradokizuna** | | **Guztira** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **Batez besteko puntuazioa** |
| Ikasleen hurbileko informazioa | 779 | 33,4 | 699 | 30,2 | 683 | 29,6 | 2.161 | 2,0 |
| Gizarte-sareak | 615 | 26,4 | 565 | 24,4 | 533 | 23,1 | 1.713 | 2,0 |
| Publizitate zirraragarria | 565 | 24,3 | 551 | 23,8 | 611 | 26,5 | 1,727 | 2,0 |
| Informazio-bideak | 370 | 15,9 | 503 | 21,7 | 479 | 20,8 | 1.352 | 1,9 |
| **Guztira** | **2.329** | **100,0** | **2.318** | **100,0** | **2.306** | **100,0** | **6.953** | **2,0** |

15. taula. Informazioarekin lotutako iradokizunak

Lehen aukera gisa, ikasleen % 33,4k uste du informazio hurbilagoa edukitzeak ikasleen partaidetza faboratuko lukeela. % 26,4k gizarte-sareen alde egin du apustu; % 24,3k, publizitate erakargarri baten alde, eta % 15,9ren ustez, garrantzitsua da ohiko informazio-bideak erabiltzea.




21. grafikoa. Informazioarekin lotutako iradokizunak

Informazioaren arloan proposatutako hobekuntza-neurrien batez besteko puntuazioa ere antzekoa da. Aintzat hartuta 1 garrantzi txikieneko iradokizuna dela eta 3, berriz, iradokizun garrantzitsuena, hurbileko informazioak, gizarte-sareen erabilerak eta publizitate erakargarriak 2 puntu lortu dituzte batez beste, eta informazio-bideen erabilerak, 1,9. Txostenean aurrera egin ahal ikusten ari garenez, salbuespenak salbuespen, ez dago polarizaziorik erantzunetan.




22. grafikoa. Informazioarekin lotutako iradokizunen batez besteko puntuazioa

Halaber, sozializazioarekin lotutako iradokizunak ere egin dizkiegu, ikasleen partaidetza hobetzea ekar dezaketenak. Lehen aukera gisa, % 36,3k taldeko jarduerak sustatzea aukeratu du; % 26,1en ustez, elkarteak eta klubak sortzeak ikasleen partaidetza areagotu dezake. % 17,3ren ustez, positiboa izan daiteke karrera-amaierako festak antolatzea, eta % 15,8ren ustez, berriz, lehiaketak antolatzea. % 4,5ek bakarrik hautatu du orkestra bat edo banda bat eratzea ikasleen partaidetza hobetzeko lehentasunezko iradokizun gisa.

| | 1. iradokizuna | | 2. iradokizuna | | 3. iradokizuna | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | kop. | % | kop. | % | kop. | % | kop. | Batez besteko puntuazioa |
| Taldeko Jarduerak sustatzea | 832 | 36,3 | 682 | 29,9 | 553 | 24,4 | 2.067 | 2,1 |
| Elkarteak, klubak, sortzea | 597 | 26,1 | 556 | 24,4 | 670 | 29,5 | 1.823 | 2,0 |
| Ikasketa amaierako galak | 396 | 17,3 | 472 | 20,7 | 515 | 22,7 | 1.383 | 1,9 |
| Musika-lehiaketak, marrazki-lehiaketak | 362 | 15,8 | 448 | 19,7 | 402 | 17,7 | 1.212 | 2,0 |
| Orkesta bat edo banda bat sortzea | 103 | 4,5 | 120 | 5,3 | 130 | 5,7 | 353 | 1,9 |
| **Guztira** | **2.290** | **100,0** | **2.278** | **100,0** | **2.270** | **100,0** | **6.838** | **2,0** |

16. taula. Sozializazioarekin lotutako iradokizunak




23. grafikoa. Sozializazioarekin lotutako iradokizunak

Sozializazioaren arloko iradokizun bakoitzaren batez besteko puntuazioari dagokionez, taldeko jarduerak sustatzea proposatzen duenak 2,1 puntu jaso ditu; elkarteak sortzea eta lehiaketak antolatzea proposatzen dituztenek, 2 puntu, eta karrera-amaierako festak antolatzea eta orkestra bat eratzea proposatzen dituztenek, 1,9 puntu.




24. grafikoa. Sozializazioarekin lotutako iradokizunen batez besteko puntuazioa

Iradokizunekin jarraitzeko, ikus dezagun zein diren garrantzitsuenak ikasleen ustez, motibazioari dagokionez. Inkestari erantzun dioten ikasleen % 34,1ek aitorpen handiagoa hautatu dute partaidetza hobetzeko lehentasunezko faktore gisa. % 31,9ren ustez, jarduerak interes profesionalarekin lotuta egoteak partaidetza hobetzea ekarriko du. % 18,2k uste du irakasleek ikasleen ordezkaritza-eginkizunak aitortzea motibaziorako faktore garrantzitsua dela, eta, % 15,8ren iritziz, lagungarria izango litzateke ikasleek ikastaroak ematen parte hartzea.

| | **1. iradokizuna** | | **2. iradokizuna** | | **3. iradokizuna** | | **Guztira** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **Batez besteko puntuazioa** |
| Aitorpen handiagoa (kredituak, etab.) | 783 | 34,1 | 660 | 28,7 | 559 | 24,5 | 2.002 | 2,1 |
| Lanbide-interesetara bideratzea | 733 | 31,9 | 708 | 30,8 | 580 | 25,4 | 2.021 | 2,1 |
| Ikasleek ikasleen ordezkaritza-lana aitortzea | 419 | 18,2 | 315 | 13,7 | 619 | 27,1 | 1.353 | 1,9 |
| Ikastaroak ematen parte hartzea | 362 | 15,8 | 613 | 26,7 | 526 | 23,0 | 1.501 | 1,9 |
| **Guztira** | **2.297** | **100,0** | **2.296** | **100,0** | **2.284** | **100,0** | **6.877** | **2,0** |

17. Taula. Motibazioarekin lotutako iradokizunak




25. grafikoa. Motibazioarekin lotutako iradokizunak

Orain, motibazioarekin lotutako iradokizunek zer puntuazio lortu duten ikusiko dugu. 1 (garrantzi txikieneko iradokizuna) eta 3 (iradokizun garrantzitsuena) bitarteko puntuazioan, kredituen aitorpen handiagoak 2,1 puntu lortu ditu batez beste, jarduerak interes profesionaletara bideratzeak bezalaxe. Irakasleek ikasleen ordezkaritza-eginkizunak aitortzeak eta ikasleek ikastaroak ematen parte hartzeak 1,9 puntu jaso dituzte.




26. grafikoa. Azpiegiturekin lotutako iradokizunak

Ikasleei proposatutako hobekuntza-iradokizunekin amaitzeko, ikus dezagun zein lehenetsi dituzten ikasleek azpiegiturei dagokienez. Ikasle gehienek (% 37,9) zerbitzuak zentralizatzea (unibertsitate-hiria) hautatu dute lehen aukera gisa; % 31ren ustez, iradokizun-postontziak ezartzea da garrantzitsuena, eta beste % 31ren ustez, berriz, ikasleentzako bilera-gelak irekitzea.

| | **1. iradokizuna** | | **2. iradokizuna** | | **3. iradokizuna** | | **Guztira** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **%** | **kop.** | **Batez besteko puntuazioa** |
| Zerbitzuak zentralizatzea (unibertsitate-hiria) | 862 | 37,9 | 665 | 29,3 | 735 | 32,5 | 2.262 | 2,1 |
| Iradokizunak bidaltzeko postontziak, Ikastegietan | 706 | 31,0 | 671 | 29,6 | 874 | 38,6 | 2.251 | 1,9 |
| Ikasleentzako bilera-gelak | 706 | 31,0 | 930 | 41,0 | 654 | 28,9 | 2.290 | 2,0 |
| **Guztira** | **2.274** | **100,0** | **2.266** | **100,0** | **2.263** | **100,0** | **6.803** | **2,0** |

18. taula. Azpiegiturekin lotutako iradokizunak




27. grafikoa. Azpiegiturekin lotutako iradokizunak

Azkenik, azpiegituren harira aipatutako hiru iradokizunek lortutako puntuazioak aztertuko ditugu. Zerbitzuak zentralizatzea edo unibertsitate-hiri bat sortzea da batez besteko puntuazio handiena jaso duen aukera (2,1); gero, ikasleentzako bilera-gelak irekitzeko iradokizuna dago (2), eta, azkenik, ikastegietan iradokizun-postontziak jartzekoa (1,9).




28. grafikoa. Azpiegiturekin lotutako iradokizunen batez besteko puntuazioa

## 7.3. BIGARREN EZTABAIDA-SAIOAK

Inkestaren emaitzak jasota, bigarren eztabaida-saioak egin ditugu. Bertan, lan-taldeei beharren eta ekintza posibleen zerrenda bat aurkeztu diegu, gauzatu beharreko **ekintzak zehazteko** asmoz.

Talde horiek egindako lanetatik, Planean proposatutako xedeak erdiestea helburu duten ekintzen zerrenda bat atera dugu. Ekintza horiek parte hartzeko bost arloen arabera sailkatu ditugu: Irakaskuntza eta Ikerkuntza, Kudeaketa, Gizartea eta Kultura, Komunitatea eta Ebaluazioa.

Jarraian, bigarren eztabaida-saioetan aipatutako **ekintzen zerrenda** aurkeztuko dugu. Zerrenda hori oinarri gisa erabili dugu esku hartzeko behin betiko ekintzak proposatzean, hurrengo atalean ikusiko dugun moduan (*8. atala*).

### 7.3.1. Irakaskuntza eta Ikerkuntza. Ekintzak zehaztea

— Oholak jartzea ikastegietan, antolatutako jardueren berri emateko.
— Jardueretarako denbora-tarte bat proposatzea (ikastegi bakoitzean).
— Sailek lankidetza-bekei buruzko informazio-saioak eskaintzea.
— Ikastegietako kalitate-batzordeetan eta unibertsitateko Ebaluazio Batzordean parte hartzea.
— Ikasleei galdetzea nor gonbidatu.
— Praktikak edo practicuma unibertsitatean egitea.
— Berdinen arteko tutoretza egitea 1. mailako ikasleekin.

— Mugikortasunaren Astea antolatzea eta hedatzea: iragarki-oholak, ikastegietako pantailak, koordinatzaileak, webgunea, facebook...
— Espezialitate bakoitzari egokitutako hizkuntza-ikastaroak eskaintzea.
— Ikasleek kudeatuko duten haurtzaindegi bat sortzea, praktikak egiteko (Irakasle-ikasketak...).
— Presoekin, drogazaleekin eta abarrekin jarduerak egitea, ikasleek gizarteko egoera gertutik ezagutzeko (Gizarte Langintza).
— Lehen laguntzako ikastaroak egitea (Irakasle-ikasketak eta Gizarte Langintza)
— Orientazio profesionalerako jardunaldiak antolatzea (espezialistek eskainiak).
— Enpresetara bisita gidatuak egitea.
— Ikasle ohiek hitzaldiak ematea (lan-mundua...).
— Tituluaren koordinatzaileak ikasleen interesei buruzko informazioa biltzea.
— Ikasleei gizarte-sareei, Moodle nahiz Ekasi plataformei, blogei eta abarri buruzko ikastaroak eskaintzea.
— Irakasleen inplikazioa sustatzea, ordutegi-malgutasuna eta halako beste pizgarri batzuen bidez.
— Irakasleei eskaintzen diren ikastaroen berri ematea.
— Jarduerak antolatzen dituzten sailek irakasleak inplikatzea, informazioa ikasgeletan zabal dezaten.
— Irakasleei gizarte-sareei, Moodle nahiz Ekasi plataformei eta abarri buruzko ikastaroak eskaintzea.
— Ebaluazio-inkesten emaitzak argitaratzea. Guneak bilatzea.
— Ebaluatzeko tresnak aldatzea.
— Inkestan, irakaslearen alderdi positibo eta negatiboei buruz galdetzea, 2 laukitan.
— Lankidetza-beka gehiago eskaintzea.
— Irakasleek ikasleei ezagutaraztea irakasgaiarekin lotutako ikerketak.
— Ikasleei sailetako proiektuen informazioa irakasleen bidez emateko jardunaldiak antolatzea (web...).
— Ikerketa-talde bateko kide izateko aukera ematea.
— Ikasle ohiei prestakuntza eskaintzeko aukera ematea.
— Tutoretzak eskola-ordutatik kanpo egitea.
— Tutoretza irakaskuntzaren osagarria dela eta ez dela nahitaezkoa jakinaraztea.
— Ikasgelan bertan informazioa ematea.
— Praktika bidezko ikaskuntzara bideratutako jarduera dinamikoagoak prestatzea.
— Eztabaida-ikastaroak eskaintzea.
— Ikasleentzako guneak sortzea (lan egiteko...).
— Ikasletxeak.
— Ideien laborategia sortzea.

## 7.3.2. Kudeaketa eta Ordezkaritza. Ekintzak zehaztea

— Finantzaketa handiagoa ematea hauteskunde-kanpainetarako.
— Ordezkaritza Ikasleen Arautegian edo Ikastegiko Arautegian sartzeko proposamena zehaztea.

- Ikasle hautetsien izenak ezagutzera ematea oholetan, wegunean...
- Kontseiluei ordezkatuekin komunikatzeko aukera ematea (posta elektronikoa, foroak, iradokizun-postontziak, banaketa-zerrendak, informazio-kapsulak, zuzendaritza-taldeak...).
- Maila altuagoetako ikasleek informaziozko hitzaldiak ematea 1. mailakoei, unibertsitatean ondo konpontzeko alderdi interesgarriei buruz.
- Harrera-saiorako aurkezpen instituzional bat prestatzea.
- Ikasleen ordezkarientzat berezko webgune bat prestatzea eta ikastegietako atarietan sartzea. Irakurterraza eta ulerterraza izatea.
- Eskola edo tutoretza errekuperatzeko aukera edukitzea.
- Irakasleen Errektoreordetzatik araudien berri ematea irakasleei.
- Aldizkako bilerak egitea saileko irakasleen eta ikasleen ordezkarien artean.
- Kudeaketako Arautegian ordezkariei azterketak eta abar atzeratzeko aukera jasotzea.
- Bozketa-tartea murriztea eta eskola-ordutan egitea.
- Bozketa-ordutegia ikastegietako ordutegira egokitzea.
- Informazioa ikasgelaz ikasgela ematea.
- Internet bidez bozkatu ahal izatea.
- Ikastegietan biltzar irekia egitea.
- Mitinak egitea, gela bakoitzeko 10 minutu erabiliz.
- Informazio-liburuxkak banatzea.
- Ordezkariaren eginkizunak ezartzea eta haien berri ematea.
- Kredituak lortzeko, bileretara nahitaez joan behar izatea.
- Idazkaritza Nagusiarekin hitz egitea, hauteskundearen protokoloa ezartzeko: zer esan nahi duen ordezkari izateak, nola aukeratzen den...

### 7.3.3. Gizartea eta Kultura. Ekintzak zehaztea

- Matrikulan eta aurre-matrikulan interesatzen zaizkien eskolaz kanpoko jardueren gainean galdetzea ikasleei.
- Ikasleen ordezkariek proposatutako jardueren finantzaketari laguntzea.
- Erakundeak eskolaz kanpoko jardueren informazio-bide gisa posta elektronikoa erabil dezan sustatzea.
- Gizarte-sareak erabiltzea informazio-bide gisa.
- SMSak informaziorako baliabide gisa erabiltzea sustatzea (MENSARIO).
- «Ekitaldien» kanal bat sortzea webgunean.
- «Ezagutu Unibertsitatea / Ezagutu Campusa / Ezagutu Ikastegia» programa ezartzea 1. eta 2. mailetako ikasleentzat: informazio-saioak unibertsitatearen antolamenduari buruz, unibertsitateko zerbitzuei buruz, kultura- eta kirol-jarduerei buruz, webguneari eta helbide elektronikoari buruz, ikasgelei buruz, mugikortasun-programei buruz, liburutegiari buruz...
- Ekitaldi instituzionalak (graduazioa...): bertaratutako ikasleei elastikoak, pinak eta abar oparitzea.
- UPV/EHUren irudia hedatzeko sarien deialdiak egitea.

- Elkarteen eguna antolatzea. Partaidetza diru-laguntzak eta finantzaketa jasotzeko baldintza gisa ezartzea.
- Ikasletxeak, ikasleentzako aisialdi-aretoak eta halako beste ekimen batzuk sustatzea.
- Unibertsitateko musika-taldeen arteko lehiaketak antolatzea.
- Gizarte eta Kultura Jardueren Batzordea eratzea.
- Posta instituzionalaren bidez foro eta gune digitalak sortzea.
- Ikastegiek aurkeztutako kultura-jardueren lehiaketa egitea. Ikasleen Errektoreordetzak campus bakoitzeko irabazlea finantzatzea.
- Ikasleei gizarte- eta kultura-jardueren berri ematea.
- Posta instituzionala komunikabide instituzional gisa erabiltzea derrigorrez.
- Posta berriz helbideratzea.
- Ikasleentzako gizarte-sare bat ezartzea, kontseiluek kudeatua, eta bertan ikastegien jarduerak zabaltzea (Zabaldu, Moodle, Tuenti, Facebook...).
- ARTUS erabiltzea, ikasleei informazio helarazteko.
- Kontseiluko idazkaria informazioa igortzeko bitartekoa izatea.
- Ekitaldiak zehaztea: zertarako eta norentzat (fitxa).
- Ikastegiaren webguneak Ikasleen Kontseiluaren atala edukitzea: hautetsiak, telefono-zenbakiak, helbide korporatiboa.
- Karrera-amaierako diplomak banatzea ikastegi guztietan.
- Ordezkariak eta ikasle-kontseiluak graduatze-ekitaldietara gonbidatzea.
- Festak egitea ikastegi bakoitzean eta campusean (kidetza-sentimendua).
- Jai Batzordeak eratzea.
- Ikasleentzako mokadua prestatzea Gabonetan.
- Ikastegiaren egunean jardunaldi ludiko bat antolatzea, kidetza-sentimendua sustatzeko.
- Matrikulan elkarteei buruzko informazioa eskaintzea.
- Harrera-egunean elkarteak aurkeztea.
- Elkarteak nola sortzen diren jakinaraztea.
- Ikasle-kontseiluetatik zentralizatzea, eta, etorkizunean, Ikasletxeetatik.
- Ikastegietan eta campusean biltzeko, erlaxatzeko, festak egiteko eta abarretarako tokiak prestatzea.
- Unibertsitate-hiria: egoitzak, taldea egiteko erreferentzia gisa.

## 7.3.4. Komunitatea. Ekintzak zehaztea

- Boluntariotza sustatzea UNIVERSITOUR programaren bidez.
- Boluntario batek boluntariotzari buruzko informazio-hitzaldiak ematea eskola-orduetan.
- Sarituta sustatzea: aukera askeko kredituak, opari bat eta onura soziokulturala.
- Boluntariotzako jardunaldiak antolatzea ikastegika (GKEak...).
- Lankidetzako praktikak sustatzea. Ez dauden tokietan ezartzea eta badaudenetan ezagutaraztea.
- Boluntariotzako elkarteak sortzea.

— Gizalde, Unikide eta beste elkarte batzuekin bilerak egitea.
— Lankidetza Bulegoari buruzko informaziozko hitzaldiak antolatzea.
— % 0,7 laukia jartzea matrikulan.
— Ikastegien ekimenak ezagutzera ematea ikasturtearen hasieran.
— Garapenerako Lankidetza Bulegoaren webgunea eguneratzea.

## 7.3.5. Ebaluazioa. Ekintzak zehaztea

— Irakasleen irakaskuntza-jarduerari buruz iritzi-inkesta egitea ikasleei: UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko DOCENTIAZ programa (irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren plangintza eta garapena ebaluatzea, baita prestakuntzako emaitzak eta irakasleen garapen profesionala ere).
— Ikasketak bukatu dituztenentzako inkesta egitea, LANBIDE eta UPV/EHUren arteko hitzarmenaren emaitza gisa.
— Ikasleentzako Argibide Zerbitzuaren (SOU/IAZ) gogobetetze-inkestak egitea.
— Beste gogobetetze-inkesta batzuk egitea: mugikortasun-programak, tresneria, administrazioko zerbitzuak eta beste batzuk, enpresetako praktikak, etab.
— Autoebaluazio Batzordean parte hartzea eta audientziak egitea kanpo-ebaluazioan.
— Ikasleen ordezkariak izango dituzten hobekuntza-batzordeak sortzea.
— Inkesta anitzagoak egitea (ez irakasleei buruzkoak bakarrik), hobetzeko asmoz.
— Partaidetza zertarako eta zeren truke egiten den ikustaraztea.
— Emaitzak ofizialki argitaratzea eta horiek oinarri hartuta jardutea.
— Ikasleen balorazioak etorkizuneko ikasleek ikusi ahal izatea.
— Irakasleak emaitzak ebaluatzeko biltzea.
— Inkesten jarraipena egitea.
— Ikasle-kontseiluek nahi duten alderdien gaineko inkestak prestatzea.
— Ikasleei ebaluatzeko modu eta prozedurak azaltzea.
— Ikasleei tituluari, helburuei eta aurreikusitako planei buruzko inkesta egitea eta emaitzen arabera jardutea.

# 8 ESKU HARTZEKO EKINTZEN PROPOSAMENA

Diagnostikoaren emaitzak aztertuta eta jarduerak zehaztuta, esku hartzeko ekintzen proposamen bat egin dugu; ekintzak partaidetza arloen arabera antolatu ditugu, eta haietako bakoitzak zer helbururi erantzun nahi dion adierazi dugu.

Era berean, ekintza horiek dagoeneko gauzatzen ari diren edo garatzeke dauden kontuan hartuta ere sailkatu ditugu. Sailkapen hori Partaidetza Plana prestatu duten norbanakoek gure unibertsitatearen funtzionamenduaren gainean duten ezagutza oinarri hartuta egin da. Hori dela-eta, zenbait ekintzaren kasuan baliteke oraindik garatzeke daudela adierazi arren dagoeneko martxan egotea edo gauzatzen ari direla adierazi arren dagoeneko ez egitea.

Nolanahi ere, ekintzen zerrenda hori UPV/EHU osoan modu orokortuan egitea nahi dugu, eta unibertsitateko ikasleen partaidetza sustatzeko gida gisa balio izatea.

## 8.1. ARLOA: IRAKASKUNTZA ETA IKERKUNTZA

| **Helburua: Ikasleei begirako komunikazio- eta informazio-bideak hobetzea haien prestakuntza-prozesuan** | |
|---|---|
| Gauzatzen ari diren ekintzak: | |
| — Ikastegiek eta sailek antolatutako ekintzak hedatzea oholetan, webgunean, helbide elektronikoetan...<br>— Practicumari buruzko informazio-saioak | — Ikastegiak |
| — Irakasleentzako ikastaroak ikasleekin irakaskuntza dela-eta harremanetan egoteko plataforma digitalei buruz (gizarte-sareak, Moodle, etab.) | — Kalitate eta Berrikuntzako Errektoreordetza |
| Garatzeke dauden ekintzak: | |
| — Irakasleek ikasleentzako prestakuntza-jardueren informazioari begira duten inplikazioa sustatzea<br>— Jardueretarako denbora-tarte bat proposatzea | — Ikastegiak |

| **Helburua: Ikasleek tutoretza-programetan parte har dezaten sustatzea** | |
|---|---|
| Gauzatzen ari diren ekintzak: | |
| — Parekoen arteko tutoretzako plana<br>— Tutore-lanak egingo dituzten ikasleak prestatzeko plana | — Ikasleen Errektoreordetza<br>— Ikastegiak |
| Garatzeke dauden ekintzak: | |
| — Irakasleei eta ikasleei tutoretza akademikoen esanahiari buruzko informazioa ematea | — Kalitate eta Berrikuntzako Errektoreordetza<br>— Ikastegiak |

| **Helburua: Ikasleek mugikortasun-programei buruzko informazioa hobeto ezagutzea** | |
|---|---|
| Gauzatzen ari diren ekintzak: | |
| — Mugikortasunaren Astea: antolaketa, hedapena eta garapena | — Nazioarteko Hedakuntzako Errektoreordetza<br>— Ikastegiak |

| **Helburua: Ikasleei ezagutzera ematea IKD eredu pedagogikoa, eta eredu hori ezartzeko haien inplikazioa lortzea** | |
|---|---|
| Garatzeke dauden ekintzak: | |
| — IKD eredu pedagogikoaren sentiberatzea eta kontzientziazioa, irakasle arduradunentzat eta ikasleentzat | — Kalitate eta Berrikuntzako Errektoreordetza<br>— Ikastegiak |
| — Diziplina arteko karrera-amaierako proiektuak eta lanak sustatzea | — Ikastegiak<br>— Sailak |

| **Helburua: Ikasleen artean lan arloko etorkizunarekin lotutako jarduerak sustatzea** | |
|---|---|
| Gauzatzen ari diren ekintzak: | |
| — Orientazio profesionaleko jardunaldiak (adituak, ikasle ohiak, enplegu-guneak, etab.) | — Ikastegiak |
| Garatzeke dauden ekintzak: | |
| — Enpresetara bisita gidatuak | — Ikastegiak |

| **Helburua: Ekiteko-aren kultura eta kontzeptu honekiko programa erlazionatuetako parte-hartzea sustatzea** | |
|---|---|
| Gauzatzen ari diren ekintzak: | |
| — Entreprenari, ZITEK-ABIATU, EHU-Inizia, Etorkizulan<br>— «Ekiten Ikasi» prestakuntza-jardunaldiak | — Campuseko Errektoreordetza |
| — IKD-GAZtE (1. edizioia) | — Kalitate eta Berrikuntzako Errektoreordetza |
| Garatzeke dauden ekintzak: | |
| — Ikastegietan Junior Enpresen ezarpena sustatzea eta haiek curriculumean aitortzea | — Ikasleen Errektoreordetza<br>— Ikasle Kontseilua<br>— Ikastegiak |
| — Ekintzailetza bultzatzeko ikasleentzako programak eta ekimenak aztertzea | — Ikasleen Errektoreordetza<br>— Campuseko Errektoreordetza<br>— Ikasle Kontseilua |
| — Karrera-amaierako lanak jendaurrean aurkeztea eta onenak aitortzea | — Campuseko Errektoreordetza<br>— Ikastegiak |
| — IKD-GAZtE (2. edizioia; kanpoko finantziazioaren zain) | — Kalitate eta Berrikuntzako Errektoreordetza |

| **Helburua: Irakaskuntzarekiko jarduera paraleloak antolatzea ikasleentzat, haien prestakuntza akademikorako osagarriak izango direnak** | |
|---|---|
| Gauzatzen ari diren ekintzak: | |
| — «Master Eguna-Día del Máster» | — Akademia Antolakuntzako Errektoreordetza |
| — UPV/EHUko zerbitzuen barruan lankidetzarako praktiken programak ezartzea | — Ikastegiak<br>— Errektoreordetzak<br>— Unibertsitate-zerbitzuak |
| Garatzeke dauden ekintzak: | |
| — Ikasleekin bilerak, prestakuntzako ekintzak antolatzeko haien interesak oinarri hartuta<br>— Ikasleei galdetzea nor gonbidatu | — Kalitate eta Berrikuntzako Errektoreordetza<br>— Campuseko Errektoreordetza<br>— Ikastegiak |

| **Helburua: Ikerketarako bokazioa sustatzea, baita ikastegiek, sailek eta institutuek antolatutako ikerketa-jardueretako partaidetza ere** | |
|---|---|
| Gauzatzen ari diren ekintzak: | |
| — Eusko Jaurlaritzak aitortutako ikerketa-talde finkoekin lankidetzan aritzeko beken deialdia | — Ikerketa Errektoreordetza |
| Garatzeke dauden ekintzak: | |
| — «Ikerketa Eguna-Día de la Investigación»<br>— Sailen informazio-saioak lankidetza-bekei buruz<br>— Irakasleek sailek antolatutako ikerketa-jarduerak eta -proiektuak hedatzea | — Ikerketa Errektoreordetza<br>— Ikastegiak<br>— Sailak |
| — Lankidetza-beken parte-hartzea eta banaketa aztertzea | — Ikasleen Kontseilua |
| — Karrera-amaierako lanak argitaratzea eta *Student Research Journal* direlakoak ezartzea | — Ikerketa Errektoreordetza<br>— Ikastegiak eta sailak<br>— Ikasleen Kontseilua |
| — «Ikertzaile gazteak» aitortzea (sariak) | — Ikerketa Errektoreordetza |
| — Ikasleen elkarte zientifikoak sustatzea eta *«Ikertzaile gazteak»* izeneko biltzarrak eta jardunaldiak antolatzea | — Ikerketa Errektoreordetza<br>— Ikasleen Errektoreordetza<br>— Ikasleen Kontseilua |

## 8.2. ARLOA: KUDEAKETA ETA ORDEZKARITZA

| **Helburua: Ikasleen ordezkarien eta ikasleen arteko koordinazioa eta komunikazio-bideak hobetzea** | |
|---|---|
| Gauzatzen ari diren ekintzak: | |
| — Ikasle-kontseiluei ordezkatuekin komunikatzeko bidea erraztea: kontseiluetarako posta-kontuak, iradokizun-postontziak, banaketa-zerrendak, informazio-kapsulak, etab. | — Ikasleen Errektoreordetza<br>— IKT Gerenteordetza<br>— Ikasleen Kontseilua |
| Garatzeke dauden ekintzak: | |
| — Ikasleen ordezkarien hileko buletina prestatzea | — Ikasleen Errektoreordetza<br>— Ikasleen Kontseilua |
| — Campus bakoitzean ikasleek parte hartzeko batzorde irekiak sortzea, ikasle-kontseiluetako kideek, elkarteetako kideek eta beste eragile batzuek osatuak | — Ikasleen Kontseilua<br>— Ikasleen Errektoreordetza<br>— Elkarteak eta beste batzuk |

| **Helburua: Ikasleek ordezkaritza-organoak eta euren eskubide nahiz betebeharrak hobeto ezagutu ditzaten lortzea** | |
|---|---|
| Gauzatzen ari diren ekintzak: | |
| — Ikasleei ordezkaritza modu guztien berri ematea | — Ikasleen Kontseilua |
| — Ikasleen ordezkarien berezko webgunea sortzea | — Komunikazio Bulegoa<br>— Ikasleen Kontseilua |
| — Ikasleen ordezkarientzako prestakuntza- eta lan-jardunaldiak<br>— Ikasleen ordezkarientzako gida prestatzea eta hedatzea | — Ikasleen Errektoreordetza<br>— Ikasleen Kontseilua |
| Garatzeke dauden ekintzak: | |
| — UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluak unibertsitateko orientazioko jardueretan parte hartzea<br>— Harrera Jardunaldietan ikasle-ordezkaritza aurkezteko aurkezpen instituzional bat prestatzea | — Ikasleen Errektoreordetza<br>— Ikasleen Kontseilua |
| — Ikasleentzako eskuliburu bat prestatzea, bertan jasota gera daitezen zenbait alderdiri buruzko zalantzak eta erantzunak: ebaluazioa, irakaskuntzaren antolamendua, ikasleen eskubideak eta betebeharrak, etab. | — Ikasleen Errektoreordetza<br>— Ikasleen Kontseilua<br>— Idazkaritza Nagusia |

| **Helburua: Ikasleek kudeaketan duten partaidetza aitortzea, bai curriculumean, bai erakundean** | |
|---|---|
| Gauzatzen ari diren ekintzak: | |
| — Ikasleen ordezkariei lana aitortzeko ekitaldi instituzionalak antolatzea | — Ikasleen Errektoreordetza |
| Garatzeke dauden ekintzak: | |
| — Irakasleei ikasleen ordezkariak babesten dituen araudiaren berri ematea | — Irakasleen Errektoreordetza<br>— Ikastegiak eta sailak |
| — Ordezkarien pizgarriak hedatzea: irakaskuntzako kredituak, TEG, diru-laguntzak, mugikortasun-beketarako eta praktiketako ikastetxeetako irizpideak, etab. | — Ikasleen Errektoreordetza<br>— Ikastegiak |
| — Ikasleen ordezkariak graduatzeko ekitaldi instituzionaletara gonbidatzea | — Ikastegiak |

| **Helburua: Unibertsitateko organoetan ikasleak hautatzeko prozesuen kudeaketa hobetzea (klaustroa, Gobernu Kontseilua, batzarrak, batzordeak, ikasle-kontseiluak, ordezkariak...)** | |
|---|---|
| Garatzeke dauden ekintzak: | |
| — Hauteskunde-prozesuak hedatzeko kanpaina: ikasgelaz ikasgela, informazio-liburuxkak, 10 minutuko mitinak ikasgelan, irakasleen inplikazioa... | — Ikasleen Errektoreordetza<br>— Ikastegiak<br>— Ikasle-kontseiluak |
| — Bozketa Internetez egiteko aukera aztertzea | — Idazkaritza Nagusia |
| — Bozketaren emaitzak ezagutaraztea | — Idazkaritza Nagusia<br>— Ikastegiak |

| **Helburua: Taldeko/gelako ordezkarien aukeraketa sustatzea, ikasleengandik hurbilen dauden pertsona gisa** | |
|---|---|
| Garatzeke dauden ekintzak: | |
| — Taldeko ordezkariak hautatzeko kanpaina hedatzea ikasturtearen hasieran | — Ikasleen Errektoreordetza<br>— Ikastegiak<br>— Ikasle-kontseiluak |
| — Ordezkariak hautatzeko protokoloa prestatzea: prozedura, eginkizunak eta betebeharrak, etab. | — Ikasleen Errektoreordetza<br>— Idazkaritza Nagusia<br>— Ikastegiak<br>— Ikasle-kontseiluak |

# 8.3. ARLOA: GIZARTEA ETA KULTURA

| **Helburua: Unibertsitateko elkartegintza sustatzea** | |
|---|---|
| Garatzeke dauden ekintzak: | |
| — Matrikulan eta Harrera Jardunaldian elkarteei buruzko informazioa ematea | — Ikastegiak<br>— Ikasleen Kontseilua |
| — «Elkarteen Eguna-Día de las Asociaciones»: antolakuntza eta garapena; elkarteen aurkezpena; elkarteen sorrera, etab. | — Ikasleen Errektoreordetza<br>— Ikasleen Kontseilua |
| — Ikasleen Elkartegintzaren Eskuliburu bat prestatzea | |

| **Helburua: Aurreikusitako akademiaz kanpoko jardueren eskaintza ikasleei ezagutarazteko bideak hobetzea** | |
|---|---|
| Garatzeke dauden ekintzak: | |
| — Posta instituzionalaren bidez foro eta gune digitalak sortzea | — IKT Gerenteordetza<br>— Ikasleen Kontseilua |
| — «Ekitaldien» kanal bat sortzea webgunean | — IKT Gerenteordetza<br>— Komunikazio Bulegoa<br>— Ikastegiak |
| — Ikasleentzako gizarte-sare bat ezartzea, kontseiluek kudeatua, eta bertan ikastegien jarduerak zabaltzea (Zabaldu, Moodle, Tuenti, Facebook...) | — IKT Gerenteordetza<br>— Komunikazio Bulegoa<br>— Ikasle-kontseiluak |
| — SMSak informaziorako baliabide gisa erabiltzea sustatzea (MENSARIO) | — IKT Gerenteordetza |
| — Gizarte- eta kultura-jarduerak eskola-ordutegian egiteko proposamena (ordutegi bateragarriak) | — Campuseko Errektoreordetza<br>— Ikastegiak |
| — Gizarte- eta kultura-jardueretarako diru-laguntzen deialdiak hedatzea | — Campuseko Errektoreordetza<br>— Ikastegiak<br>— Ikasleen Kontseilua |

| **Helburua: Ikasleen artean gizarte- eta kultura-jarduerak sustatzeko ekimena bultzatzea** | |
|---|---|
| Gauzatzen ari diren ekintzak: | |
| — Unibertsitateko elkarteei kultura-jarduerak gauzatzeko laguntzak emateko deialdiak | — Ikasleen Kontseilua |
| Garatzeke dauden ekintzak: | |
| — Matrikulan eta aurre-matrikulan interesatzen zaizkien eskolaz kanpoko jardueren gainean galdetzea ikasleei | — Campuseko Errektoreordetza<br>— Ikastegiak |
| — Gizarte eta Kultura Jardueren Batzordea eratzea | — Campuseko Errektoreordetza<br>— Ikastegiak<br>— Ikasleen Kontseilua |
| — Unibertsitateko musika-taldeen arteko lehiaketak antolatzea | — Campuseko Errektoreordetza |
| — Ikastegiek aurkeztutako kultura-jardueren lehiaketa egitea<br>— Ikastegietan eta campusean biltzeko guneak prestatzea | — Campuseko Errektoreordetza<br>— Ikastegiak |
| — Ikasle Proiektuetarako sari deialdia (Azoka) | — Ikasleen Kontseilua |
| — Partaidetza sustatzeko jarduerak bateratuko dituzten ekitaldiak Campusetan antolatzea (boluntariotzaren eguna, elkarteen eguna, etab.) | — Campuseko Errektoreordetza<br>— Ikasleen Errektoreordetza<br>— Ikasleen Kontseilua |

| **Helburua: Ikasleen eta UPV/EHUren arteko loturak sustatzea eta zabaltzea, gizarte- eta kultura-ekintzen bidez** | |
|---|---|
| Gauzatzen ari diren ekintzak: | |
| — Graduazio-ekitaldiak antolatzea, hedatzea eta garatzea | — Ikastegiak |
| — Ikasleak saritzea erakundearen irudi ona hedatzeagatik<br>— Unibertsitateko Eztabaida Kluba antolatzea, hedatzea eta garatzea | — Ikasleen Errektoreordetza |

| Garatzeke dauden ekintzak: | |
|---|---|
| — «Ezagutu Unibertsitatea / Ezagutu Campusa / Ezagutu Ikastegia» programa 1. eta 2. mailetako ikasleentzat: informazio-saioak, instalazioetara bisitak, etab. | — Ikasleen Errektoreordetza<br>— Campuseko Errektoreordetza<br>— Ikastegiak<br>— Ikasleen Kontseilua |
| — «Ikastegiaren Eguna-Día del Centro»: batzorde antolatzaile baten sorrera, anaitasuneko mokadua, beste jarduera batzuk, etab. | — Ikastegiak<br>— Ikasleen Kontseilua |
| — «Miguel de Unamuno» Ikastetxe Nagusiak eta Egoitzek parte hartzea gizarte- eta kultura-jardueren kudeaketan | — Campuseko Errektoreordetza |

## 8.4. ARLOA: KOMUNITATEA

| **Helburua: Ikasleen artean boluntariotza sustatzea** | |
|---|---|
| Gauzatzen ari diren ekintzak: | |
| — Boluntariotzari lotutako partaidetza sustatzea: jarduera espezifikoengatiko irakaskuntzako kredituak...<br>— Lankidetzako praktikak sustatzea<br>— Kanpoko elkarteekin bilerak (Gizalde, Boluntа...) | — Gizarte Erantzukizuneko eta Unibertsitate Hedapeneko Errektoreordetza |
| Garatzeke dauden ekintzak: | |
| — UNIVERSITOUR Boluntariotza Azoka antolatzea eta garatzea | — Ikasleen Kontseilua<br>— Ikasle-kontseiluak, CREUP |
| — Boluntariotzako jardunaldiak ikastegika: «Boluntarioen Eguna»<br>— Boluntariotzako eta lankidetzarako garapeneko elkarteak sortzea | — Gizarte Erantzukizuneko eta Unibertsitate Hedapeneko Errektoreordetza |

| **Helburua: Ikasleei boluntariotzarekin eta lankidetzarekin lotutako UPV/EHUko jarduerak ezagutaraztea (GKEak, laguntzen deialdia, etab.)** | |
|---|---|
| Gauzatzen ari diren ekintzak: | |
| — UPV/EHUko boluntariotza eta lankidetzako webgunea eguneratzea | — Gizarte Erantzukizuneko eta Unibertsitate Hedapeneko Errektoreordetza |
| Garatzeke dauden ekintzak: | |
| — UNIVERSITOUR Boluntariotza Azoka antolatzea eta garatzea | — Ikasleen Kontseilua<br>— Ikasle-kontseiluak, CREUP |
| — Matrikularen % 0,7 emateko sentiberatze-kanpaina<br>— Boluntariotzari buruzko informazio-hitzaldiak antolatzea eta garatzea, boluntario batek eskainiak<br>— Garapenerako Lankidetza Bulegoari buruzko informazio-hitzaldiak antolatzea eta garatzea<br>— Ikastegien ekimenak hedatzea | — Gizarte Erantzukizuneko eta Unibertsitate Hedapeneko Errektoreordetza |

| **Helburua: UPV/EHUra datozen mugikortasun-programetako ikasleei laguntzea eta babesa ematea, errazago integra daitezen gizartean nahiz unibertsitatean** | |
|---|---|
| Gauzatzen ari diren ekintzak: | |
| — Buddy programa | — Nazioarteko Hedakuntzako Errektoreordetza |

## 8.5. ARLOA: EBALUAZIOA

| **Helburua: Ikasleek goi mailako hezkuntzaren ebaluazio-prozesuetan parte har dezaten sustatzea** | |
|---|---|
| Gauzatzen ari diren ekintzak: | |
| — Irakasleen irakaskuntza-jarduerari buruzko iritzi-inkestak<br>— Autoebaluazio Batzordean parte hartzea eta audientziak egitea kanpo-ebaluazioan | — Kalitate eta Berrikuntzako Errektoreordetza |
| — Unibertsitate-titulua UPV/EHUn lortu duten pertsonak bizitza aktiboan nola sartu diren jakiteko azterketa: emaitzen hedapena eta dibulgazioa | — Ikasleen Errektoreordetza |

| Garatzeke dauden ekintzak: | |
|---|---|
| — Ikasleentzako gogobetetze-inkestak zenbait zerbitzu eta programari buruz | — Ikasleen Errektoreordetza<br>— Ikasleen Kontseilua |
| — Irakasleen irakaskuntza-jardunari buruzko iritzi-inkestaren esanahiari buruzko informazioa ematea ikasleei<br>— Ikastegiek edo sailek iritzi-inkesten emaitzak ezagutaraztea<br>— Ikastegietako kalitate-batzordeei buruzko hedapen-kanpaina ikasleentzat | — Kalitate eta Berrikuntzako Errektoreordetza |

# 9 ONDORIOAK

Inkestari erantzun dioten hamar ikasletik lauk unibertsitateko jarduera edo ekintzaren batean parte hartzen dutela (edo hartu dutela) adierazi dute. Nolanahi ere, Plan honen prestaketan esku hartu duten gainerako taldeen ustez, ikasle guztiek ez dute neurri berean parte hartzen, eta partaidetza beti izaten da proposatutako jarduerek haiengan pizten duten interesaren araberakoa.

Jardueren edo ekintzen tipologiari dagokionez, nabarmentzekoak dira irakaskuntzarekin eta unibertsitateko bizitzarekin zerikusia dutenak. Ikasleen esanetan, hitzaldi eta biltzarretan, ikastaro eta mintegietan, irakasleak ebaluatzeko inkestetan, kultura- eta kirol-jardueretan eta hauteskundeetan parte hartzen dute, batik bat. Gainerako taldeek berretsi egin dute datu hori, eta zenbait eremutan partaidetza handia dela azpimarratu dute, hala nola unibertsitateko elkarteetan, tutoretza-programetan, mugikortasun-programetan, informazio- eta sentiberatze-jardueretan edo curriculumaz kanpoko gaitasunen prestakuntzan.

Unibertsitateko jardueretan parte hartzea mugatzen duten arrazoien artean, talde guztiek honako hauek aipatu dituzte nagusiki: informaziorik eza, jardueren eta ikasleen arteko loturarik eza, aitorpen eskasa, denbora-falta edo ordutegien bateraezintasuna, partaidetzaren aitorpenik eza, motibazio txikia eta UPV/EHUko kidetza-sentimendurik eza. Ikasleek parte hartzea sustatuko luketen arrazoiak, ordea, aurreko horien kontrakoak dira, hain justu. Ikasleen eta gainerako taldeen ustez, partaidetza aitortzea, ikasleak motibatzea, irakasleak inplikatzea, UPV/EHUko kidetza-sentimendua indartzea eta informazioa nahiz haren hedapena hobetzea oinarrizko faktoreak dira partaidetza areagotzeko.

Oro har, talde guztiek uste dute irakaskuntzarekin lotutako jardueretan parte hartzea garrantzitsua dela, nagusiki ikasleek. Hortaz, garrantzitsua iruditzen zaie ikastaro eta mintegietara joatea, lan-munduarekin edo prestakuntza akademikoarekin zerikusia badute, batik bat; garrantzitsutzat dituzte, halaber, ikerketa-proiektuak eta lankidetza-bekak, baita ordezkaritza-zereginak (batez ere Ikasleen Kontseilukoak) eta unibertsitateko bizitzaren baitako jarduerak (kultura-jarduerak eta ekitaldien antolakuntza, besteak beste) ere.

Ikasleek gehien aipatutako hobekuntza-iradokizunek jardueren gaineko informazioaren hobekuntzari egiten diote erreferentzia; haien ustez, eskuragarriagoa behar du izan; modu txundigarrian eman behar da ezagutzera, eta jarraipena izan behar du gizarte-sareetan.

Beharrezkotzat dute taldeko jarduerak sustatzea eta elkarte nahiz klubak sortzea ikasleen artean kidetza-sentimendua sustatzeko, irakasleek aitorpen handiagoa eskaintzea ikasleen ordezkaritzari eta partaidetza gehiago aitortzea, hala nola kredituak emanez edo espedientea hobetuz. Horrez gainera, ikasleen iritzia eta interesak aintzat hartu behar direla ere uste dute. Azkenik, askoren ustez unibertsitate-hiri bat sortzeak erraztuko luke ikasleek parte hartzea.

Gainera, lan honetan talde guztiek proposatutako ekintzak bildu ditugu, eta proposatutako helburuen arabera ordenatu ditugu. Ikus dezakegunez, ekintza horietako asko gaur egun gauzatzen dira, nahiz eta tarte handia dagoen Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen partaidetza hobetzeko. Alde horretatik, ikasleen partaidetza sustatzeko gako batzuk proposatu ditugu:

1. Ikasleek unibertsitateko jardueren antolakuntzan eta plangintzan parte har dezaten sustatzea.
2. Jarduerak ikasleen interesetara egokitzea.
3. Ikasleen laneratzearekin edota prestakuntza akademikoa osatzearekin lotutako jarduerak proposatzea.
4. Egungo informazio- eta hedapen-bideak hobetzea eta teknologia berrietara egokitzea, hala nola gizarte-sareetara.
5. UPV/EHUko webgunea hobetzea eta, bereziki, eskainitako jarduera guztiak bilduko dituen gune baten sorrera sustatzea.
6. Ahal den neurrian, jarduerak eskola-ordutegietara egokitzea.
7. Ikasleen partaidetzak aitorpen handiagoa izan dezan lortzea (kredituak, espedientea, etab.).

Azkenik, UPV/EHUko Ikasleen Errektoreordetzak eskerrak eman nahi dizkie Plan hau prestatzea ahalbidetu duten guztiei haien partaidetzagatik, laguntzagatik eta ekarpenengatik. *III. eranskinean* parte-hartzaileen zerrenda dago (73 pertsona).

I. Partaidetza-Plana hasi berri dugun ibilbidearen hasiera baino ez da. Hori prestatzen lan egin dugun guztiok horretan lagundu izana espero dugu.

# 10 PLANAREN GARAPENA ETA JARRAIPENA

Partaidetza Plan honetan proposatutako ekintzak gauzatu ahal izateko, beharrezkoa da zenbait eragile edo arduradunen inplikazioa, laguntza eta partaidetza, eta horrek berekin dakar horiek guztiak egokiro koordinatu beharra.

Partaidetza Plana kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko, organo bat sortu nahi dugu: **«Partaidetza Batzordea»**. Batzorde hori Ikasleen Errektoreordetzaren mende egongo da, eta Planaren ezarpena egituratzeaz eta koordinatzeaz arduratuko da, hainbat lan-talderen bitartez.

Ikasleen errektoreordeak, edo hark eskuordetutako pertsona, Partaidetza Batzordearen buru izango du, eta bertako kide izango dira unibertsitateko taldeetako ordezkari desberdinak (ikasleak, AZP, II) eta ikasleen kontseiluetako ordezkariak; halaber, errektoreordetzetako ordezkariek ere parte hartuko dute batzorde horretan, bakoitzak dagokion eskumenen arabera.

Batzorde horrek eginkizun hauek beteko ditu, besteak beste:

— Plana ezartzeko egutegia prestatzea eta zehaztea.
— Ekintza beharrezkoenei lehentasuna ematea.
— Garatu beharreko ekintzak deskribatzea eta haiek gauzatzeko metodologia zehaztea.
— Ekintzen ezarpenaren kontrola eta jarraipena egitea.
— Prozesua eta emaitzak ebaluatzeko adierazleak finkatzea, proposatutako xedeen erdiespenaren bilakaera aztertzeko.
— Emaitzak urteko txostenen bidez aurkeztea.

Ikasleen Errektoreordetzak sortuko du Partaidetza Batzordea, Gobernu Kontseiluak Plana onartu ostean eta UPV/EHUko Zuzendaritza Taldearen ildo estrategikoen arabera.

# 11 ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK


Alegre, A. (2011). *Líneas de actuación en las políticas de atención al estudiante*. «Buenas Prácticas en Orientación Universitaria» ikastaroa. UPV/EHUko XXX. Uda Ikastaroak Donostian.

Almorza, D. eta Del Río, L. (2011*). Plan Integral de Participación del Alumnado de la Universidad de Cádiz*. Cadizko Unibertsitatea.

Becerra, J. (2006). «La escasa participación estudiantil alerta a la comunidad universitaria», *El Mundo (sección Campus),* urriaren 18a.

Bonil, J. eta González, N. (2009). *Del conflicto a la participación*. UNIVEST 2009, «Claves para la implicación de los estudiantes en la universidad» nazioarteko biltzarra. Girona: Universitat de Girona.

Cifre, J.M. eta beste batzuk (2010). *La participació dels estudiants a la universitat*. Congreso Internacional de Docencia Universitaria e Innovación (CIDUI). Bartzelona.

Galán, F.M. (2008). *La participación estudiantil en los sistemas de garantía de calidad, compromiso de mejora*. UNIVEST 2008, «El estudiante, eje del cambio en la universidad» nazioarteko biltzarra. Girona: Universitat de Girona.

Jover, G. (2011). *La participación de los estudiantes en la universidad*. Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitatearen udako ikastaroa. Santander.

Longueira, S. eta González, M.ªE. (2009). *Universidad y participación: La formación integral a través de actividades complementarias*. UNIVEST 2009, «Claves para la implicación de los estudiantes en la universidad» nazioarteko biltzarra. Girona: Universitat de Girona.

Llavori, R. (2009). *El rol de los estudiantes en la Evaluación de la Calidad Universitaria*. Calidad en Educación Superior 2009 topaketak. Murtzia.

Merhi, R. (2011). *Las claves de la participación estudiantil en la universidad española.* UNIVEST 2011, «La autogestión del aprendizaje» nazioarteko III. biltzarra. Girona: Universitat de Girona.

Pastor, C. (2009). *El sistema Interno de Garantía de Calidad: la participación de los estudiantes en el seguimiento de las enseñanzas*. Calidad en Educación Superior topaketa. Murtzia.

Periáñez, I. (2007). *La participación de los estudiantes en la evaluación de la calidad*. Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitatea. Santander.

Rauret, G. (2009). *La participación de los estudiantes en los procesos de evaluación de la calidad*. Calidad en Educación Superior topaketa. Murtzia.

Ruiz, M.C. (2009). *La participación de los estudiantes en los procesos de evaluación de la calidad*. Calidad en Educación Superior topaketa. Murtzia.

Soler, P.; Pallisera, M.; Planas, A.; Fullana, J. eta Vilà, M. (2012). «La participación de los estudiantes en la universidad: dificultades percibidas y propuestas de mejora». *Revista de educación, 358,* 542-562.

*The European Students' Union (ESU*). 2012ko apirilaren 16an aterea esteka honetatik: http://www.esu-online.org/news/article/6001/44/

# 12 ERANSKINAK

I. eranskina: Lehenengo eztabaida-saioetako edukia
II. eranskina: UPV/EHUko ikasleentzako inkesta
III. eranskina: Partaidetza-Planean lagundu duten pertsonak

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

**EHUko IKASLERIAREN PARTE-HARTZERAKO PLANA**

PLAN DE PARTICIPACIÓN DEL ALUMNADO
EN LA UPV/EHU

*Kontraste taldeak*-Grupos de contraste

IKASLEEN ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE ALUMNADO

# I. ERANSKINA

| | |
|---|---|
| 1. **IKASLEEK UNIBERTSITATEAN PARTE-HARTZEN DUTE?**<br>¿PARTICIPA EL ALUMNADO EN LA UNIVERSIDAD? | |
| | |
| 2. **ZER MOTATAKO EKINTZATAN/JARDUERATAN PARTE-HARTZEN DUTE?**<br>¿EN QUÉ TIPO DE ACCIONES/ACTIVIDADES PARTICIPAN? | |
| | |
| 3. **ZER MODUTAN PARTE-HAR LEZAKETE UNIBERTSITATEAN? ZER MOTATAKO EKINTZATAN/JARDUERATAN?**<br>¿DE QUÉ OTRA FORMA PODRÍAN PARTICIPAR EN LA UNIVERSIDAD? ¿EN QUÉ TIPO DE ACCIONES/ACTIVIDADES? | |
| | |
| 4. **EHUko UNIBERTSITATEAN IKASLEEN PARTE-HARTZEA MUGATZEN EDO LAGUNTZEN DUTEN FAKTOREAK?**<br>FACTORES QUE LIMITAN O FAVORECEN LA PARTICIPACIÓN DEL ALUMNADO EN LA UPV/EHU (motivos para participar o no participar) | |
| LAGUNTZEN DUTE / FAVORECEN | MUGATZEN DUTE / NO FAVORECEN |
| | |
| 5. **NOLA USTE DUZUE HANDI DAITEKELA IKASLEEN PARTE-HARTZEA UNIBERTSITATEAN? ZER EGIN LITEKE?**<br>¿CÓMO CREÉIS QUE SE PODRÍA AUMENTAR LA PARTICIPACIÓN DEL ALUMNADO EN LA UNIVERSIDAD? ¿QUÉ SE PODRÍA HACER? | |
| | |

# II. ERANSKINA

## UNIBERTSITATEKO IKASLEEK UPV/EHUn DUTEN PARTE-HARTZEARI BURUZKO GALDETEGIA

Mesedez, hartu denbora pixka bat, eta erantzun galdetegi labur honi. Zure iritzia oso baliagarria izango zaigu ikasleek gure unibertsitatean parte-hartze handiagoa izan dezaten abian jarri nahi dugun ekintza-plana osatzeko; azken batean, hobetzea eta gizarteari onurak ekartzea baita helburua.

Zure erantzunak isilpean gordeko ditugu, eta ez dira erabiliko UPV/EHUko Ikasleen Errektoreordetzak egingo duen ikerketaz kanpoko ezein helburutarako.

Galdetegiari erantzuteko, gutxi gorabehera, 10 minutu beharko dituzu.

Eskerrik asko laguntzeagatik.

---

1. Parte hartzen duzu edo parte hartu duzu Unibertsitateak antolatutako jarduaeretan?

☐ BAI ☐ EZ

2. Zer eratako ekintza/jardueretan parte hartzen duzu edo parte hartu duzu?

2.1. Adierazi parte hartzen duzun edo parte hartu duzun 5 ekintza edo jarduera nagusi:

| |
|---|
| 1. |
| 2. |
| 3. |
| 4. |
| 5. |

2.2. Hemen zerrendatutako ekintza/jardueretatik, adierazi zeinetan parte hartzen duzun edo parte hartu duzun.

Talde bakoitzetik aukera bakarra edo gehiago adieraz ditzakezu

*Irakaskuntza*

☐ Mugikortasun-programak
☐ Harrera-programak (ikasle berriekin)
☐ Parekoen arteko tutoretza
☐ Irakasleak ebaluatzeko galdetegiak
☐ Solasaldiak eta hitzaldiak
☐ Ikastaroak, mintegiak eta jardunaldiak

*Ikerkuntza*

- [ ] Lankidetza-bekak
- [ ] Lankidetza-beken epaimahaiko ikasleen ordezkaria
- [ ] Hezkuntza Berrikuntzarako Programak
- [ ] Ikerketa-proiektuak
- [ ] Ikerketa-galdetegiak

*Kudeaketa.* Ikasleen ordezkariak, honako hauetan...

- [ ] Gobernu Kontseilua, Ordezko Batzordeak (AADB, GIAB, Euskera...)
- [ ] Unibertsitate Klaustroa
- [ ] Ikasle Kontseilua (Zentrala, Campusekoa, Ikastegikoa)
- [ ] Ikastegiko Batzarreko, Ikastegiko Ordezko Batzordeetako... ordezkaria
- [ ] Saileko Kontseilua
- [ ] Taldeko/gelako ordezkaria
- [ ] Konpentsazio Epaimahaia

*Unibertsitate-bizimodua*

- [ ] Kultura-jarduerak
- [ ] Kirol-jarduerak
- [ ] Ate irekien jardunaldiak
- [ ] Ikasleen unibertsitate-elkarteak
- [ ] Eztabaida-ligak
- [ ] Lehiaketak (kartelak, marrazkia, argazkia, etab.)
- [ ] Hauteskundeak (unibertsitate-organoetarako ordezkariak bozkatzea)
- [ ] Ekimenak antolatzea

*Gizarte-arloa*

- [ ] GKEen jarduerak, etab.
- [ ] Boluntariotza-jarduerak
- [ ] Adineko pertsonekin ostatu hartzea

3. Ikasleek UPV/EHUn Duten parte-hartzea mugatzen duten faktoreak.

3.1. Zure ustez, ikasle batzuek zergatik ez dute parte hartzen Unibertsitatean antolatutako jardueretan?

Adierazi arrazoiak, garrantziaren arabera ordenatuta:

| |
|---|
| 1. |
| 2. |
| 3. |
| 4. |
| 5. |

3.2. Hemen adierazitako arrazoietatik zein daude, zure ustez, parte-hartzearen gabezia horren atzean?

Ordenatu 1etik 5era, garrantziaren arabera: 1. garrantzi txikienekoa izango da, eta 5. garrantzitsuena

| | |
|---|---|
| | Ikasleen betebeharrak (ordutegi bateraezinak, denbora-gabezia, eskoletara derrigorrez joan beharra, etab.) |
| | Ikasleen motibazio kaskarra (erabakiak hartzeko indar eskasa, kexuei edo iradokizunei ez dietela erantzuten, etab.) |
| | Informazio eskasia (komunikazio-gabezia, ikasleen arteko harreman-gabezia, Kontseiluen esku-hartzea, etab.) |
| | UPV/EHU kanpoko zerbait bezala ikustea |
| | Ikasleen premiekin edo interesekin loturarik ez izatea |

4. Ikasleek UPV/EHUn parte hartzea bultzatzen duten faktoreak.

4.1. Zure ustez, beste ikasle batzuek zergatik parte hartzen dute Unibertsitatean antolatutako jardueretan?

Adierazi arrazoiak, garrantziaren arabera ordenatuta:

| |
|---|
| 1. |
| 2. |
| 3. |
| 4. |
| 5. |

4.2. Hemen adierazitako arrazoietatik zein daude, zure ustez, parte hartzeko interes horren atzean?

Ordenatu 1etik 5era, garrantziaren arabera: 1. garrantzi txikienekoa izango da, eta 5. garrantzitsuena:

| | |
|---|---|
| | Informazioa hobetzea (publizitate gehiago, erakargarriagoa, zuzenagoa eta interesgarriagoa) |
| | Ikasle Kontseiluaren, Ordezkarien, etab. parte-hartzea |
| | Irakasleen parte-hartzea (motibazioa, prestakuntza) |
| | UPV/EHUko partaide sentitzea |
| | Onarpenak (kredituak, egiaztagiriak, espedientea, etab.) |

5. Zure ustez, ikasleek zer jarduera edo ekintzatan parte hartzea da garrantzitsua?

   Adierazi jarduerak, garrantziaren arabera ordenatuta

| |
|---|
| 1. |
| 2. |
| 3. |
| 4. |
| 5. |

5.1. Hemen zerrendatutako jardueren artean adierazi, zure ustez, zeinetan den komenigarria ikasleek parte hartzea.

Proposatzen dizugun talde bakoitzetik 3 jarduera aukeratu behar dituzu, eta ordenatu garrantziaren arabera (1. garrantzi txikienekoa izango da; 3., berriz, garrantzitsuena):

*Irakaskuntza*

- ☐ Mugikortasun-programak
- ☐ Harrera-programak (ikasle berriekin)
- ☐ Parekoen arteko tutoretza
- ☐ Irakasleak ebaluatzeko galdetegiak
- ☐ Solasaldiak eta hitzaldiak
- ☐ Ikastaroak, mintegiak eta jardunaldiak

*Ikerkuntza*

- ☐ Lankidetza-bekak
- ☐ Lankidetza-beken epaimahaiko ikasleen ordezkaria
- ☐ Hezkuntza Berrikuntzarako Programak
- ☐ Ikerketa-proiektuak
- ☐ Ikerketa-galdetegiak

*Kudeaketa.* Ikasleen ordezkariak, honako hauetan...

- ☐ Gobernu Kontseilua, Ordezko Batzordeak (AADB, GIAB, Euskara...)
- ☐ Unibertsitate Klaustroa
- ☐ Ikasle Kontseilua (Zentrala, Campusekoa, Ikastegikoa)
- ☐ Ikastegiko Batzarreko, Ikastegiko Ordezko Batzordeetako... ordezkaria
- ☐ Saileko Kontseilua
- ☐ Taldeko/gelako ordezkaria
- ☐ Konpentsazio Epaimahaia

*Unibertsitate-bizimodua*

- ☐ Kultura-jarduerak
- ☐ Kirol-jarduerak
- ☐ Ate irekien jardunaldiak
- ☐ Ikasleen unibertsitate-elkarteak
- ☐ Eztabaida-ligak
- ☐ Lehiaketak (kartelak, marrazkia, argazkia, etab.)
- ☐ Hauteskundeak
- ☐ Ekimenak antolatzea

*Gizarte-arloa*

- ☐ GKEen jarduerak, etab.
- ☐ Boluntariotza-jarduerak
- ☐ Adineko pertsonekin ostatu hartzea

6. Nola handiagotu daiteke, zure ustez, ikasleek Unibertsitatean duten parte-hartzea? zer egin genezake?

Adierazi iradokizunak, garrantziaren arabera ordenatuta:

| |
|---|
| 1. |
| 2. |
| 3. |
| 4. |

6.1. Proposatzen dizkizugun iradokizun hauetatik adierazi zein diren, zure ustez, ikasleen parte-hartzea hobetzen lagundu dezaketenak.

Proposatzen dizugun talde bakoitzetik 3 iradokizun aukeratu behar dituzu, eta ordenatu garrantziaren arabera (1. garrantzi txikienekoa izango da; 3., berriz, garrantzitsuena):

*Informazioa*

- ☐ Publizitate zirraragarria, erakargarria
- ☐ Ikasleen hurbileko informazioa
- ☐ Informazio-bideak (web-orria, CAMPUSA aldizkaria, liburuxkak...)
- ☐ Gizarte-sareak (twitter, facebook, tuenti...)

*Sozializazioa*

- ☐ Elkarteak, Klubak, etab. sortzea
- ☐ Ikasketa amaierako galak
- ☐ Musika-lehiaketak, marrazki-lehiaketak, etab.
- ☐ Orkestra bat edo banda bat sortzea
- ☐ Taldeko jarduerak sustatzea (asteburuan eskiatzera joatea, bazkariak/afariak, ikasketa amaierako bidaiak...)

*Motibazioa*

- [ ] Ikasleak ordezkatzeko zereginetan irakasleen onarpena
- [ ] Parte-hartzearekin lotutako jarduerak lanbide-interesera bideratzea
- [ ] Ikasleek ikastaroak eskaintzen parte hartzea
- [ ] Parte-hartzea gehiago onartzea eta aitortzea, kreditu bidez, egiaztagiri bidez, etab.

*Azpiegitura*

- [ ] Iradokizunak bidaltzeko postontziak, Ikastegietan
- [ ] Ikasleentzako bilera-gelak
- [ ] Zerbitzuak zentralizatzea (unibertsitate-hiria)

Ia-ia amaitu duzu galdetegia.

Azken galdera hauei esker, hobeto aztertu ahal izango ditugu ikerlanaren emaitzak.

7. Zenbait datu sozio-demografiko.

7.1. Sexua:

- [ ] Emakumea
- [ ] Gizona

7.2. Adina:

- [ ] 18tik 20 urtera
- [ ] 21etik 24 urtera
- [ ] 25etik 30 urtera
- [ ] 31tik 40 urtera
- [ ] 40tik 50 urtera
- [ ] 50 urte baino gehiago

7.3. Gaur egun matrikula eginda al duzu UPV/EHUn?:

- [ ] Bai
- [ ] Ez

7.4. Zein campusetan ikasten duzu edo ikasi duzu?:

- [ ] Arabako Campusa
- [ ] Bizkaiko Campusa
- [ ] Gipuzkoako Campusa

7.5. Zein ikastegitan egin duzu edo egin zenuen matrikula?:

ARABAKO CAMPUSA

- [ ] Gasteizko Enpresa Ikasketen UE
- [ ] Gasteizko Ingeniaritza UE
- [ ] Gasteizko Irakasleen UE
- [ ] Gasteizko Gizarte Langintzako UE
- [ ] Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea
- [ ] Farmazia Fakultatea
- [ ] Letren Fakultatea
- [ ] Gasteizko Medikuntzako Irakasgunea
- [ ] Arabako Esperientzia Gelak

BIZKAIKO CAMPUSA

- [ ] Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa
- [ ] Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoa
- [ ] Bilboko Enpresa Ikasketen UE
- [ ] Leioako Erizaintzako UE
- [ ] Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE
- [ ] Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE
- [ ] Bilboko Irakasleen UE
- [ ] Lan Harremanen UE
- [ ] Arte Ederren Fakultatea
- [ ] Zientzia eta Teknologia Fakultatea
- [ ] Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea
- [ ] Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
- [ ] Medikuntza eta Odontologia Fakultatea
- [ ] Zuzenbide Fakultatea-Bizkaiko Atala
- [ ] Bizkaiko Esperientzia Gelak

GIPUZKOAKO CAMPUSA

- [ ] Arkitektura Goi Eskola Teknikoa
- [ ] Donostiako Enpresa Ikasketen UE
- [ ] Donostiako Erizaintzako UE
- [ ] Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE
- [ ] Donostiako Irakasleen UE
- [ ] Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa
- [ ] Zuzenbide Fakultatea
- [ ] Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
- [ ] Informatika Fakultatea
- [ ] Psikologia Fakultatea
- [ ] Kimika Fakultatea
- [ ] Gipuzkoako Esperientzia Gelak

7.6. Maila.

Adierazi zein den matrikula eginda duzun edo egin zenuen mailarik gorena:

- ☐ 1.
- ☐ 2.
- ☐ 3.
- ☐ 4.
- ☐ 5.
- ☐ 6.
- ☐ Graduondokoa (masterra, berariazko titulua, doktoregoa)
- ☐ Esperientzia Gelak

---

Amaitu duzu galdetegia
UPV/EHUko Ikasleen Errektoreordetzak asko eskertzen dizu emandako laguntza

# III. ERANSKINA

## PARTAIDETZA-PLANEAN LAGUNDU DUTEN PERTSONAK

## **KOORDINAZIOA ETA LANTZEA:** Ikasleen Errektoreordetza

| | |
|---|---|
| — Elena Bernaras Iturrioz | *UPV/EHUko Ikasleen Errektoreordea* |
| — Fernando Etxegarai Agara | *Ikasleentzako Argibide Zerbitzuko Koordinatzailea (IAZ)* |
| — Isaac Barrio Marín | *Unibertsitate Orientaziorako Teknikaria (IAZ)* |

## Aholkularitza

| | |
|---|---|
| — José María Zumalabe Makirriain | *UPV/EHUko Ikasleen errektoreorde ohia* |
| — Lander Sarasola Ituarte | *UPV/EHUko Ikasleen errektoreorde ohia* |
| — Beatriz Casares Pascual | *UPV/EHUko Ikasleen errektoreorde ohia* |
| — Maite Erro Jauregi | *UPV/EHUko Ikasleen errektoreorde ohia* |
| — Xabier Etxague Alcalde | *UPV/EHUko Ikasleen errektoreorde ohia* |
| — José Antonio Oleaga Páramo | *Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea* |
| — Iñaki Barcena Hinojal | *Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea* |
| — Rafael Ajangiz Sánchez | *Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea* |
| — Alicia Suso Mendaza | *Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea* |

## LANTALDEAK

### Irakasle eta Ikertzaileen Pertsonala (II)

| | |
|---|---|
| — Cirilo García Román | *Letren Fakultateko irakaslea eta dekanordea* |
| — Jose Antonio Ibarrola Agirre | *Gazteizko Irakasleen UE.ko irakaslea eta zuzendariordea* |
| — Ernesto López Losa | *Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko irakaslea eta dekanordea* |
| — María José García López | *Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE.ko irakaslea eta zuzendariordea* |
| — Nieves Larroy Larroy | *Arte Ederren Fakultateko irakaslea eta dekanordea* |
| — Montserrat Maritxalar Anglada | *Informatika Fakultateko irakaslea eta dekanordea* |
| — Gonzalo Guerrica-Echevarria Estanga | *Kimika Fakultateko irakaslea eta dekanordea* |
| — Félix Caballero Castresana | *Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE.ko irakaslea eta zuzendariordea* |

## Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala (AZP)

| | |
|---|---|
| — Ana Aguinaco Isasmendi | *Letren Fakultatea* |
| — María Zarza Basabe | *Gasteizko Gizarte Langintzako UE* |
| — Alberto Zabala Bengoa | *Gasteizko Irakasleen UE* |
| — Loli Gobantes García | *Bilboko Irakasleen UE* |
| — Amaia Mendiguren Landa | *Arte Ederren Fakultatea* |
| — Javier San Juan Herrero | *Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE* |
| — Arrate Berasaluce San Martín | *Donostiako Erizaintzako UE* |
| — María Jesús Otal Ventura | *Donostiako Enpresa Ikasketen UE* |
| — Fernando de la Caba Valdivieso | *Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa* |
| — Jorge Herrera Gutiérrez | *Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE* |

## Ikasleak (Ikasle Kontseiluko kideak)

| | |
|---|---|
| — Aratz Castro Angulo | *Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea* |
| — Unai Martínez Corral | *Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE* |
| — Adrian Hugo Llorente Aginagalde | *Medikuntza eta Odontologia Fakultatea* |
| — Arrate Blanco Careaga | *Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE* |
| — María Guiomar García Seijas | *Lan Harremanen UE* |
| — Iker Martín Pesado | *Bilboko Ingeniaritza GET* |
| — Zorion Gamboa Puente | *Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE* |
| — Irati Iturburuaga Garcia | *Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE* |
| — Ander Feijoó Alonso | *Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE* |
| — Jokin Babaze Aizpurua | *Zuzenbide Fakultatea* |
| — Iker Rueda Luque | *Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE* |
| — Elena Querol García | *Donostiako Erizaintzako UE* |

## Ikasleak

| | |
|---|---|
| — Guillermo Pancorbo Nuin | *Gasteizko Enpresa Ikasketen UE* |
| — Diego Mikel Martyn | *Gasteizko Ingeniaritza UE* |
| — Maider Zabaleta Urbizu | *Gasteizko Irakasleen UE* |
| — Laura Calvo Mendo | *Gasteizko Gizarte Langintzako UE* |
| — Udane Lauzirika Ziarsolo | *Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea* |
| — Maite Irastorza Carasa | *Farmazia Fakultatea* |
| — Ageda Galarraga Zuazo | *Letren Fakultatea* |
| — Soledad Prado Arias | *Leioako Erizaintzako UE* |
| — Ainara Mardones Moreno | *Arte Ederren Fakultatea* |
| — Jone Rodríguez Zabalza | *Arte Ederren Fakultatea* |
| — Gorka Otaegi Uriya | *Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea* |
| — Marta García Diego | *Medikuntza eta Odontologia Fakultatea* |
| — Gorka de la Cuesta Bermejo | *Zuzenbide Fakultatea. Bizkaiko Atala* |
| — Xabier Apraiz San Vicente | *Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE* |
| — Maitane Estévez Garces | *Nautika eta Itsasontzi-Makineria GET* |
| — María Do Socorro Dantas | *Bilboko Enpresa Ikasketen UE* |
| — Aitor Merino Rekalde | *Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE* |
| — Alain Mendibil Olaguibel | *Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE* |
| — Estrella Rodríguez Fernández | *Bilboko Irakasleen UE* |

| | |
|---|---|
| — Javier Barrutia Rocillo | *Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea* |
| — Iratxe Lupiola Ezkurra | *Arkitektura GET* |
| — Regina Baptista Estrade | *Arkitektura GET* |
| — Ioritz Albertos Iturralde | *Donostiako Enpresa Ikasketen UE* |
| — Sandra Maeso Muñoz | *Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE* |
| — Maria Esther Lungangu Makaya | *Donostiako Erizaintzako UE* |
| — Ibai Imanol Iratzoki Ubiria | *Donostiako Irakasleen UE* |
| — Naiara Olaso Altzuri | *Zuzenbide Fakultatea* |
| — Aaron Gabanes García | *Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea* |
| — Marta Santamaría Villa | *Informatika Fakultatea* |
| — Gemma Franch Salvia | *Psikologia Fakultatea* |
| — Janire Alkorta Salegi | *Kimika Fakultatea* |

Pertsona guzti hauei eskerrak eman nahi dizkiegu!